



# Pil-pilean

TRUKINGU  
Soraluzeko hilabetekaria  
2022ko martxoa - 384 alea

**ZENBAKI HONEKIN BATERA**  
EKINTZAILTZARI BURUZKO GEHIGARRIA



**KORRIKA**  
**EUSKALTEGIAN HASTEN DA**



**MIGUEL  
ALTUNA**  
Lanbide  
Heziketa

[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)

☎ 943 89 92 70 · 943 89 92 71

✉ [info@maltuna.eus](mailto:info@maltuna.eus)

▶▶ **ATEAK ZABALIK**  
**APIRILAK 5 eta 28**

ESKAITZA IKUSI 27. orrialdean



**ETA AURREMATRIKULAK  
MAIATZEAN!**





## PIL-PILEAN 384

2022ko martxoa

Azaleko argazkiaren egilea:  
Egoitz Unamuno.

### Aurkibidea

- |    |   |   |
|----|---|---|
| 4  | <b>Elkarrizketa</b> Iñaki Alberdi                                   | IRITZIA   |
| 6  | <b>Begira</b> Mendigainean eolikorik ez!                            | 3 <b>Neuretik</b> Ane Ugalde Iñurrieta<br><i>Palankak</i>                       |
| 8  | <b>Zer berri</b> Aktualitateko albisteak                            | 18 <b>Gutunak</b> Juan Ramon Garai<br><i>Soraluzeko eta Eibarko gerra umeak</i> |
| 14 | <b>Argazki bidez</b> Martxoaren 8.                                  | 18 <b>Komiki tira</b>   |
| 16 | <b>Ugaraxo</b> Lehen zikloko ikasleak<br>buru-belarri lanean        | 19 <b>Hausnarketa</b> Zerk arduratzen zaitu<br>gehien                           |
| 20 | <b>Erreportajea</b> Korrika euskaltegian<br>hasten da               | 19 <b>Puntua</b> Olatz Sebal <i>Zibersexismoa</i>                               |
| 26 | <b>Kirola</b> Fitness aholkularia eta<br>futbola                    |   |
| 30 | <b>Gure artistak</b> Jose Mari Igartua                              |   |
| 32 | <b>Sakonean</b> Garau kooperatiba                                   |   |
| 34 | <b>Zerbitzuak</b> Zorion-agurrak,<br>oroitzak, iragarki laburrak... |   |



**Pil-pilean herri  
komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen  
Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko  
UDALA**

# Palankak



ANE UGALDE IÑURRIETA

**L**aneko proiektu batek eraman nau azkenaldian inplikazioaren inguruan hausnartzera. Hainbat azterketek erakutsi dute, enpresa bateko langileen inplikazioa berauen ongizatearen mailarekiko proportzionala dela. Hau da, langilea gustura eta ongi sentitzen bada lanean, bere jardunarekiko inplikazioa altuagoa izango dela.

Lan arlotik irtenda, herrira begira jarri eta galderak datozkit burura. Herritar moduan, zer nolako inplikazioa daukagu guk Soraluzerekiko? Ba al daukagu herriari "eman" egin behar diogunaren kontzientziarik?

Niretzat, pertsonalki, herriarekin inplikaturata egoteak herria eraikitzea esan nahi du. Herriagatik lana egitea, komunitatean parte hartzea. Niretzat Soraluzerekin inplikaturata egoteak esan nahi du, besteak beste, aratusteetan eskolatik haur eta gazteak herrira ez direla jaitziko entzutean, "hemen zerbait aldatu behar dugu" bultzada sentitzea. Edota, herriko merkataria erretiroa hartzen doazela ikustean eta utziko dituzten negozioiek jarraipenerako inor interesaturik ez dutela jakitean, "hau geldiarazteko herrian oraindik eta gehiago kontsumitu behar dut" erabakitzea. Guraso elkarteko kide izatea tokatzen zaigunean, "marroi" bat izan beharrean, aukeratzat hartzea. Eskolaz kanpoko talde edo erakunde bateko bilera orokorrerako deialdia heltzen zaigunean, "ea ba tarte hartu ahal dudan bertara joateko" gogoia sentitzea.

Herritarren inertzia horiek pizteko palankak diseinatu eta martxan jarri behar dira. Egoera ondo aztertu ondoren, pertsona talde jakinengan planteamendu konkretu batzuk aktibatuta, izugarritzko efektua lortu ahal da herrian. Hori da palanken bertutea: puntu zehatz batean indar txiki bat aplikaturata, emaitza ikusgarriak lortu ahal direla. Palanken aktibazio hori udal gobernuaren ardura dela iruditzen zait. Baina palanka horien indarra gurea da, herritarrona. Gure energiak mugituko du palanka hori, gurea da bultzada horri erantzuteko eta mantentzeko giltza. Inor ez da ezer ematera etorriko herri honetara. Emandakoak gainera ibilbide motza dauka. Eraikitakoak ordea izugarritzko satisfazioa ematen du. Inplikatu gaitezen, beraz, Soraluze eraikitzen.

**"NIRETZAT  
HERRIAREKIN  
INPLIKATURATA EGOTEAK  
HERRIA ERAIKITZEA  
ESAN NAHI DU"**

# “Alderdi psikikoa ere entrenatu daiteke”

---

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO.

---

Alderdi soziala apalduago dugun garaiotan, gero eta sarriago aipatzen dira den gaia da emozioen kudeaketa, bai behintzat mendebaldeko gizartean. Baina aipatzea gauza bat da eta egitea beste bat. Iñaki Alberdik (Soraluze, 1971) urteak daramatza "ongizate emozionala lortzera bideratutako bideak eta esperientziak" lantzen, eta prest dago ikasitakoak "hala nahi duenarekin elkarbanatzeko", elkarrizketa honetan Pil-pileanekin egin duen moduan.

## **Gero eta gehiago aitutzen dira arazo emozionalak.**

Bai, hala da. Kontuan izan behar dugu daroagula bizitza erritmo azkarra, presio handia eta bizi garela gizarte erabat konpetitiboan. Horretan murgilduta, zaila da geure burua hortik kanpo kokatzea. Horregaitik da garrantzitsua noizean behin geldiune bat egitea eta planteatzea nondik gatozen, zer garen eta nora goazen, eta galdera horiei erantzuteko orduan, badira hainbat mekanismo lagungarri izan daitezkeenak hausnarketa hori egiteko, esaterako, entzute-psikologia.

## **Zer da entzute-psikologia?**

Askotan esaten dugu zein garrantzitsua den entzutea, baina entzutearen inguruan dihardugunean, gehienetan besteei entzuteaz jarduten dugu. Ostera, zer pasatzen da erreparatzen badiogu norbere burua entzuteko beharrari?

Ariketa hau gutxitan egiten dugu, askotan horretara jartzen ez garelako eta beste batzuetan ez dugulako jakiten hori zela egin. Hain zuzen, hori egiteko mekanismo bat da entzute-psikologia.

Denok daroago gudan eredu konkretu baten zama, dela zama kulturala, hezkuntzatik datorrena, elijiosoa edota beste mota batekoa. Ba ikasi dudan gauzetako bat da gako nagusienetako bat dela zama guzti horiek arintzea, aurrera pauso bat ematea geure burua biluzteko eta horrela geure buruari entzun ahal izateko. Garen horri

erreparatu eta barneratutako eredu eta ideia horiek alde batera lagatzean datza ariketak.

## **Barneratutako eredu eta ideiak alde batera lagatzea. Ez dirudi lan erraza denik...**

Ez, zalantzarik barik, ez da lan erraza baina egin daiteke. Norbere buruari entzutea heltzeko prozesu horretan ez dago helmugarik, pausoz pauso egin behar da bidea eta presa barik. Alderdi fisikoa entrenatzen dugun bezala, alderdi psikikoa ere entrenatu daiteke, emozioak kudeatzeko orduan. Gauza jakina da ezin dugula maratoni bat korritu aurrez ez badugu entrenamendu egoki bat bete. Ba, bizitza ere lasterketa baten antzekoa da eta egunero metroak egingez, lehenengo lana da emozioak egoki kudeatzea, ongizatea esaten diogun hori lortzeko.

## **Zer lor daiteke norbere buruari entzunez?**

Dudarik barik, norbera izatea. Gutariko bakoitzak askatasuna izan behar du nahi duena egiteko eta nahi duena izateko, hori bai, inori minik egin barik eta errespetu osoa mantenduz. Azken batean, zer dago “ondo” eta zer “gaizki”? Errespetua da gako nagusietako bat.

Norberaren bizitzaren lekuko izan, behatu eta entzun gure barruak zer esaten digun. Gero eta zama gehiago askatu, aukera gehiago eta handiagoa izango dugu gure buruak esaten diguna argi gehiagorekin ikusi ahal izateko.

Halako ariketak egin ostean, jendeak komentatu izan dit norbere buruari entzuteko entrenamendu horrek asko lagundu izan diela besteei entzuteko garaian, errazago egin zaielako lehen aipatutako lotura guzti horietatik askatzea edo kontuan ez izatea. Gero eta gehiago askatu loturetatik, handiagoa izango da besteei ulertzeko gaitasuna.

## **Amaitzeko, lehenago galdetzen genuen moduan, motzean, 5 galdera:**

**Toki bat:** Soraluze.

**Soraluzeko leku bat:** Plaza Zaharra.

**Amets bat:** Ametsik ez egitea.

**Burua ala gorputza:** Biak batean.

**Esaldi bat:** Ezer ez izan, dena izateko.





## Kontrako haizea

**ARGAZKIA: MIKEL VALERO.**

**TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.**

Hilabete pasatxo joan da Capital Energy enpresak Karakaten bi aerosorgailu ezartzeko proiektua aurkeztu zuenetik eta harrekeroko proiektuaren kontraktasuna adierazteko hainbat ekimen antolatu dira herrian: Karakate Bizirik herritarren plataforma eratu da eta Udalak proiektuaren kontrako jarrera argia agertu du, aho batez onartu duen adierazpena kaleratuta. Hain zuzen, adierazpen horrek deituta batu ziren martxoaren 19an 150 herritar inguru Plaza Barrian, *Mendigainean eolikorik ez* zioen pankarta eskutan.

Bitartean, prozedura legalak bere bidean jarraitzen du. Egun batzuen buruan amaituko da enpresek inskribatzeko duten epea eta proiektuak aurkeztekoa zabalduko da gero, gehienez, sei hilabetekoa. Udalak, bere aldetik, jakinarazi du proiektuari alegazioak aurkeztuko dizkiola. Bada zerbait, baina pentsatzekoa da kontrako haizeak indartsuago jo beharko duela Capital Energiren asmoa geraraziko badu.









Anatolii Tsygненко, Marina Kalinski, Amaia Unamuno eta Eugeny Kalinsky.

# Ukrainarreko elkartasuna

Azken asteotan, eguenero, gerraren aurkako elkarretaratzeak egiten ari dira herrian, material bilketa oparoa egin dute eta bi ukrainar soraluzetar familia baten etxean dira errefuxiatu

Martxo erditik, Marina Kalinsky (Vorzel, 1994) Soraluze dago errefuxiatuta, 4 urteko Eugeny semearekin, Ukrainako gerratik ihesi. Amaia Unamunoren eta Gillermo Garciaeren etxean daude, umetan, hainbat udaz, bertan izen zen Dmitro Kalinskyren emaztea eta semea baitira.

Soraluzen daude, baina beti Ukrainara begira. Marinari, 28 urterekin, bizitza apurto zaio. "Otsailaren 24an, 04:15ean zaratak entzuten hasi ginen. Askok ekaitza zela pentsatu zuten. Baina ez. Hainbat berrik zioten hiria iparretik setiatzen saiatzen ari zirela. Egia zen. Biharamunean sartu zen indarrean Gerra-legea. Ezin sinetsita geunden, oraindik hala gaude".

Bonbardaketak iritsi ziren, "ortura irten eta kazak ikusten genituen"; hildakoak gero, "ezinezkoa da kalean gorpuekin

topo egin gabe ibiltzea"; txikizioa. Bigarren egunean, ihes egiteko aukera sortu, ordu erdian prestatu, Eugeny hartu eta hona ailegaterainoko odisea hasi zuen Marinak. Atzean laga behar izan ditu senarra eta familia, galdu du erosi berri zuten etxea, bizimodua, dena. Eta beldur da. "Izututa nago, etxera itzuli eta han geratu den senarrarekin egoteko gogo ikaragarriarekin. Armadara bidali dute", esan du.

## "Airea itxi behar da"

Oraindik orain, urrun ikusten du itzulera. "Ez zaio akaberarik ikusten. Bonbardatzen segitzen dute errusiarrek. NATOk ez du Ukrainako airea itxi nahi, baina hori egin ezean, bonbardaketek segi egingo dute. Alarmak jotzen du eta guztiak ezkututzen dira. Genozidioa egiten ari dira Ukrainan, hau ez da nazien kontrako ezer". Ukrainar gazteak ia bi orduko kontakizun latza egin du, tarteka malkoei ezin eutsita, Soraluze bizi izandako Anatolii Tsygненко ukrainarra ondoan duela. Azken horrek jakin berri du Ukrainan duen amama bizirik dela, oraingoz.

## Elkartasun keinuak, astero

Marina moduko asko daude Ukrainan. Horieta 8 seme-alabatza dituzte Soraluze. Umetan hartu zituzten etxean, osasuna hobetzeko, udaldirako. Orain, haiek ezin burutik kendu dabilta. Gerraren kontrako elkarretaratzeak antolatu dituzte. Bestalde, material bilketa handia eta etenganekoa, biak egiten ari dira Fernando Garciaeren ekimenez.



Herriarrak gerraren kontra.



# "Udalak alegazioak aurkeztuko ditu"

IKER ALDAZABAL ALKATEA

Karakaten eraiki nahi duten zentral eolikoa dela eta, alkateak proiektuarekiko duen iritzia eta Udalak dituen asmoen berri eman du.

## **Zein puntutan dago kontua?**

Martxoaren 4an, Euskal Herriko aldizkari ofizialean argitaratutako iragarkiaren berri daukagu. Prozesuari hasiera ematen diona.

## **Aurkeztu da beste norbait?**

Ez dakit.

## **Udalak erakutsi du proiektuaren kontra dagoela. Zergatik?**

Martxoaren 2ko osoko bilkuran hiru alderdiok adostutako mozioa aho batez onartu zen. Argi uztea nahi dugu energia berriztagarrien alde gaudela baina ez gaude ados, Muskiritzuko mendi lerroan, haize errota ipintzea nahi duten kokalekuarekin. Azken urteetan Udalak mendigaina balorean jartzeko egin duen apustuarekin ez dugu bateragarri ikusten. Baina adibidez, Sologoeneko Elektra Etxea Udalarena da, Udalak energia berriztagarrien aldeko apustua egiten duenaren adibide garbia.

## **Zelako aurketa eragingo dute aerosorgailuek mendigainean?**

Haize errota ipintzeko baimena lortzen bada, enpresak proiektu bat aurkeztu beharko du lanak nola gauzatu behar dituen zehaztuz.

## **Udala kontra egonda ze punturainoko aukera dago proiektua gerarazteko?**



Iker Aldazabal.

Proiektuaren tramitazio prozeduran Udalak alegazioak aurkezteko aukera izango du. Prestatzen gabiltza eta aurkeztuko ditugu.

## **Herriarren mobilizazioa ere beharrezko ikusten duzu?**

Bai noski! Horregatik dei egin genien martxoaren 18an egin zen elkarretaratzera.

## **Halako proiektuak ezin dira erakundeen artean adostu non eta zelan egin?**

Indarrean dagoen PTS-ak (Plan Territorial Sectorial) zehazten ditu azpiegitura horiek non ezin diren kokatu. Ez da Karakateko mendi lerroaren kasua. Beraz posible izango litzateke. Lurren antolamenduaren legedia Udalaz gaindiko erakundeak tramitatzen du (Jaurlaritzak). Udalak Hirigintzako Antolamendu Plan Orokorra tramitatzen duen bezala. Erakunde bakoitzak bere eskumenak ditu legedi tramitazioari dagokionean.

## Haurreskolako matrikulazioa

Haurreskolan zabaldu dute 2022-2023 ikasturterako matrikulazio epea. Bestela esanda, 2021ean eta 2022an jaiotakoentzako matrikulazio epea da. Irailetik aurrera hasiko dira Haurreskolan.

Matrikulazio-epeari dagokionez, apirilaren 11tik maiatzaren 9ra bitartean eman ahal izango da izena - apirilaren 14tik 25era itxita izango da, Aste Santuko oporregatik-.

Informazio gehiago behar izanez gero, Haurreskolen Partzuergoaren webgunera zein herriko Haurreskolara jo daiteke edo telefonoz deitu (943751332).

## Eros-ahalmena gal ez dadin eskaera

Maiatzaren bukaerara arte, pentsioen erosteko ahalmenari eutsi diezaioten eskatzeko sinadurak batzen jardungo dute, Diputatuen Kongresura bidaltzeko. Zehazki, eskatuko da 2022rako eta hurrengo urteetarako pentsioen igoera KPI errearen igoeraren arabera egitea; pobrezia-atalasetik beharrezko pentsiorik ez egotea bermatzea, soldatetan eta pentsioetan dagoen genero-arrakala ezabatuz eta gutxieneko pentsioa handituz; eta pentsio publiko duin, bidezkoak eta bizitzeko bestekoak bermatzea, baita Pentsio Sistemaren izaera publikoa bermatzea ere.



Rosita, Anita eta Sole del Bosque, gerratik ihesi bildai zituzten hiru ahizpa. INTXORTA K.E.

# Gerrako umeen informazioa batzera

Maiatzaren 5ean, 12an eta 19an, bulegoa ipiniko dute kiroldegiko Tolarekua aretoan, umeen gaineko ahalik eta informazio osatuena batzeko

Intxorta 1937 Kultur Elkartearen ekimenez, 1936an, "matxinatu frankistek, italiarren eta alemaniarren laguntzarekin, euskal populazioaren aurka egindako bonbardaketa indiskriminatuetatik babesteko" erbestera bidali zituzten umeen "memoria identifikatu eta berreskuratzeko asmo handiko proiektua" abiarazi zuten 2021ean, Gipuzkoako Diputazioak diruz lagunduta.

*Gerrako umeak* izena eman zaie eta Intxorta elkarteak uste du Gipuzkoan, 6.000 baino gehiago izan zirela, 70 Soraluzeokoak, 34 neska eta 36 mutil.

## Umeen gorabeherak jaso nahi

Halaber, umeon testigantzak "Memoriaren pieza garrantzitsutzat" jotzen dituzte, "gerran zuzenean parte hartu ez

bazuten ere, gatazkaren ondorio sozial, fisiko eta afektibo mingarriak jasan baitzituzten". Hala, maiatzaren 5ean, 12an eta 19an, Soraluzeoko testigantzak batzeko arreta bulegoa ipiniko dute, Tolarekuan, 10:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



Ernesto del Bosque Arin. INTXORTA



Gonzalo Portu.

## "Gure asmoa da pandemia aurreko martxa berreskuratzea"

**GONZALO PORTU**  
ITXAROPENAKO PRESIDENTEA

Otsaila amaieratik, Gonzalo Portu (Soraluze, 1956) da Itxaropenako presidentea **Zelan kargu berriarekin?** Gustura. Mentalizatuta nengoen. Lantalde oso ona dugu eta bakoitzak bere lanak egiten ditu.

### Hasi zarete txangoak antolatzen.

Bai. Begira ari gara hainbat egunerako txango-aukerak, udarako.

### Pandemia aurreko martxa hartuko duzue, ala?

Hori da asmoa. Bagabiltza bingoa egiten eguenetan, gisatu lehiaketa arrakastatsua egin genuen. Ea egin ditzakegun 80 urtetik gorako omenaldia eta bestelako guztiak. Segitzen dugu, baita ere, podologo zerbitzua eskaintzen.

Podologoak eskaera handia du; hilean behin dator eta beti du agenda dena beteta. Etxez etxe ere joaten da.

### Besterik nahi baduzu esan...

Jendea gustura dator eta ahal duguna egingo dugu. Eta Soraluzen eolikorik ez eta presak bakean lagatzeko.

# Zuhaitz Egunerako gonbitea

Zuhaitz landaketarako lursaila egokitu egingo dute, haurrak zein helduak arazo barik molda daitezzen

Apirilaren 3an, domeka, Zuhaitz Eguna ospatuko da. Aurten, Soraluzeke Baso Biziak elkarteak, Udalak eta Soraluzeke Mendi Taldeak elkarlanean antolatu dute eguna. Gainera, denboraldiko azkeneko landaketa izango da berau.

Aurtengo Zuhaitz Eguneako arbolak Unamuno baserriko jabeek bidegorrian lagatako lursailan sartuko dira, herritik oinez 800 bat metrotara dago kokalekua. Gainera, lur saila egokitu egingo dute haurrak

bertan arazorik gabe ibili daitezzen. Bestalde, antolatzaileen esanetan, helduak ere ongi etorriak izango dira.

Behin zuhaitzen landaketa eginda, salda eta txorizoa partituko dute ibai ondoan Udalak egokitu duen herriko aisialdi gune berrian, Inazibarren

## Izen-ematea

Zuhaitz Egunean interesa duen edozeinek parte har dezake,



Herritarrek zuhaitza landatzen.

baina komenigarria da aldez aurretik izena ematea. Horretarako, bidali izen-abizenak eta adina ondorengo helbide honetara: [soraluzekobasobiziak@gmail.com](mailto:soraluzekobasobiziak@gmail.com).

## ORRATZ

625709951

## Artisau Osagarriak eta Bordatuak

Cristina Albisua

100% ZERBITZU PROFESIONALA

ZUK BEHAR DUZUNA BORDATZEN DUGU:

- EMPRESAKO UNIFORMEAK
- BISERAK
- PARTXEA
- KAMISETA
- KIROL JANTZIAK
- IKASTOLAKO AMANTALAK
- UME JANTZI ETA ARTIKULUA
- ... ZUK BEHAR DUZUNA!

## TXAPELAK

ZURE PATROIA DISEINATZEN DUGU!



# Autoservicio Amparo ixteko arriskuan

Inork ez du saltokia erosteko interesik erakutsi; orain alokairuan edo transferentzian hartzeko aukera ere ematen ari dira

Iazko ekainean, salgai jarri zuten Autoservicio Amparo saltokia. Orain, alokagai ere jarri dute eta transeferentzian (traspasoan) hartzeko aukera ere emango dute.

Amparo Fernandezek, saltokiaren ugazabetako batek esan duenez, saltokia salgai jarri zutenean, joan zitzairen jendea galdezka, baina haien interesa zen saltokia alokairuan hartzea eta ugazabena, berriz, saltzea. "Baina harrezkero ez da beste inor etorri. Beraz, orain



Amparo Fernandez denda.

alokairuan edo transferentzian hartzeko aukera ere zabaldu dugu".

Gaineratu duenez, ahizpa Txaro prest legoke aurten hartu nahi duen erretiroa atzeratu eta denboraldi batez Amparori saltokian laguntzeko, baina Ticket Bai fakturazio sistema dator eta ez du hor sartu nahi. Era berean, Txarok erretiroa hartzen badu, Amparok dio berak bakarrik ezin duela saltokia kudeatu. "Espero dezagun, sikiera, norbait denda alokairuan hartzeko gertu etortzea. Guk ez dugu denda ixterik nahi. 33 urte ditu eta bezero asko. Auzokoek ere ez dute denda ixterik nahi baina itxi egin behar bada, ba itxi egin beharko dugu".

Norbaitek interesa badu, hona hemen harremanetarako telefonoa: 943 75 13 38.

## Apirilean hasiko dira bisitak

Aurten, bederatzi bisita izango dira, apirilean hasi eta urriaren amaieran bukatuko direnak, iazko prezio berberetan

Aurten, Dolmenen Ibilbidea bertatik bertara ezagutzeko bisita gidatuak datorren apirilaren 9an hasiko dira, gaztelaniazko bisita batekin. Guztira, bederatzi bisita izango dira, horietatik hiru euskaraz eta sei gaztelaniaz.

Orain arte moduan, bisitak Karakateko aparkalekutik abiatuko dira 10:00etan. 9 kilometroko ibilbide laua da, erraza eta familian egiteko aproposa.

### Deskontuak herrikoendako

Prezioak iazko berak izango dira: helduek bost euro eta 12 urtetik beherakoek 3 euro. Merkeago Soraluzen, Bergaran edo Elgoibarren bizi direnendako: helduek 2,5 euro eta 12 urtetik beherakoek 1,5 euro. Izena emateko, 657 794 677 telefonora deitu edo <https://www.debabarrenaturismo.com/eu/dolmenen-ibilbidea/bisita-gidatuak> webguneko formularioa bete beharra dago.

## Udal tramiteak online

Tokiko administrazioa herritarrengana hurbiltzeko ahaleginean, Udalak baliabide berria jarri du herritarren eskura: Udal Zerbitzu Telematikoak. Zerbitzu horrek zenbait tramite eta kontsulta internet bitartez egiteko aukera ematen du, bulego ordutegien mugetatik aske eta etxetik edo lanlekutik mugitu beharrik ez izateak ematen duen erosotasunarekin.

### Txartel digitala

Hori bai, zerbitzu telematikoak erabiltzeko beharrezkoa da identifikazio digitala izatea: Izenpe, ONA edo antzekoak zein B@KQ identifikazioa.



Nerea Gabilondo eta Marisa Santome Negabi ile-apaindegian.

# "Bion artean, zerbitzu osoa eta irisgarria emango dugu"

Martxoaren 29tik, Marisa Santome eta Nerea Gabilondo elkarrekin hasiko dira ile-apaintzaile zerbitzua eskaintzen. Santa Ana kaleko Negabi ile-apaindegian jardungo dute.

## Zelatan elkartu zarete?

Ni (Marisa) aspaldi elkartu nintzen Nerearekin, ile-apaindegietako BEZaren jaitsiera eskatzeko mobilizazioen harira. Ni, berriz, (Nerea) bere ile-apindegira joaten naiz ilea moztera, adibidez. Baina han eskaillerak ditu eta bestalde, nire umea jaio zenetik zerbitzua bakarrik arratsalde eskaintzen

dudanez, bata dela eta bestea dela, berbetan hasi eta pentsatu genuen biak Negabin elkartzea. Hartara, bion artean, zerbitzu osoa eta irisgarria eskainiko dugu.

## Deigarria da elkarren lehiakide izanda ere, elkartzea.

Asko konpartitzen dugu ile-apaintzaileok. Ni (Marisa) elkarteko kide naiz eta aberasgarria da ideiak-eta partekatzea. Lanean hasi nintzenean, Soraluzean urtean behin elkartu eta gure gauzak konpartitzen genituen.

Nik ere (Nerea) lagunak ditut nirekin ikasi eta ile-apaindegia

ipini dutenak. Ikastaroak egiten ditugu eta elkar ezagutzen dugu guztiok ere.

## Zelako zerbitzua eskainiko duzue?

09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 19:00etara.

Zapatuetan, 09:00etatik 13:00ak arte. Abuztuan ere eskainiko dugu zerbitzua egun batzuetan, goizez. Ile-apaintzaile zerbitzuaz aparte, bestelakoak ere baditugu: makillajea, ezkontzak, Lehen Jaunartzeak, bekainak, bibotea...

## Zeini zuzenduta dago Negabi?

Da unisex eta adin guztietakoei eskainitako zerbitzua.

## Ilea jaso ere egiten duzue, ezta?

Bai. Mechones solidarios ekimeneko partaide gara. Nahi duenak moztutako koleta ekar dezake, Malagara bidaltzen da eta han ile-ordeak egiten dituzte, minbizia dutenendako. Bestalde, Soraluze, Mugituz! ekimenaren lasterketak babesten ditugu, baina orain ez dago lasterketarik.

## Biek duzue eskarmentu handia ile-apaintzaile modura, ala?

Negabin hamar urte eta lehenago beste bost egin nituen, kanpoan. Nik, berriz, (Marisa) 36 urte daramatzat Soraluzean eta beste zazpi egin nituen Eibarren.

## Besterik nahi baduzue gaineratu...

BEZarena lotsagarria dela. %8tik %21era igo ziguten. Igoera guk asumitu dugu. Ia ez ditugu prezioak igo. Baina ez da logikoa, adibidez, jatetxe baten jatearengatik %10eko BEZa ordaintzea eta ile-apaintzaile zerbitzuarengatik %21.

**"09:00EATIK 12:30AK ARTE ETA 15:00ETATIK 19:00AK ARTE ETA ZAPATUETAN, 13:00AK ARTE IZANGO GARA"**

# Behingoz parekide

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: LEIRE GINEA

Aurtengoan ere, Martxoaren 8an olatu moreak herriko kaleak bete zituen. Dozenaka lagunek more kolorez, zarataz, kantuz eta musikaz haizatu dituzte parekidetasunaren aldeko aldarrikapenak. Denda eta taberna ugari itxita zirela, manifestazioa egin zuten kalerik kale; hainbat belaunalditako andreak aurrean eta, oro har, gizonak atzean zirela. Plaza Zaharrean borobildu zuten ekimena. Saretzearen aldeko mezua, sistema arrakalatzearen aldekoa, elkar zaintzekoa partekatu zuten bertan, baina batik bat, horren guztiaren alde borrokatzeko beharraren mezua helarazi zuten, "pozez eta amorruez, izan dadin gure herria behingoz parekide".







# Herrian zein kanpoan ikasten

IGERIKETA IKASTAROAK, GATZ MUSEORA BISITA, BARATZEA ETA IBAIA

---

## TESTUA ETA ARGAZKIAK PLAENTXI ESKOLA

---

Pil-pilean aldizkariaren otsaileko alean, Plaentxi Eskolako Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleek egindako hainbat jardueraren berri eman zuten.

Oraingo honetan, lehen zikloko ikasleei tokatzen zaie txanda, haiek ere buru-belarri baitabilta hainbat proiektutan parte hartzen.

### Piszina ikastaroa

Ikasturte honetan, lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetako ikasleok igeriketa ikastaroan parte hartu dugu. Bertan, igeriketa saioetan igerian egiteaz gain, oso ondo pasatzeko aukera izan dugu jolas ezberdinekin jolastuz. Gure ikasleak igerilari apartak izateko urratsak ematen ari dira.

### Leintz Gatzagara irteera

Martxoaren 11n, lehen mailako ikasleak Leintz Gatzagara joan ginen, elikagaien erronkari bukaera borobila emateko. Erronka horretan, erreza ezberdinak lantzeaz gainera, hainbat elikagai mota aztertu eta dastatu ditugu. Irteeran bertan, Gatzaren Museoa bisitatu genuen eta han gatzaz nondik eta nola ateratzen zen ikasi genuen.

Jarraian, Jakion lantegira joan ginen eta han, marmeladak nola egiten zituzten ikusi



Umeak igerilekuan, bainatzeko prest.


genuen. Benetan bisita interesgarria izan zen eta egun pasa bikaina igaro ondoren, etxera poz-pozik bueltatu ginen.

### Gure baratza

Udan, eskolako patioan taulenak jarri eta urrian lurrez bete zituzten haiek. Azaroa heldu zen eta bigarren mailako



Piszinara sartzeko zain.



Gatz Museoa.





Baratza lantzen.



Ibai bazterrean.

ikasleei eskolako baratza martxan jartzeko eskatu ziguten eta noski, erronka hori gogotsu hartu genuen, bai horixe!

Lehenengo, baratza zer zen eta hari buruz genekiena aztertu genuen. Ondoren,

landatu genitzakeen barazkiak aukeratu eta horiek erosi genituen, baita landaketarako behar genituen tresnak ere. Hurrengo egunean, berriz, landareak landatu eta haziak eroin eta gero, barazki horien

inguruko azalpen testuak sortu genituen. Amaitzeko, baratzean jartzeko, landatu eta ereindako barazkien izenen txartelak eta txorimaloak egin genituen. Horrekin batera, taulena bakoitzean txorimalo bana ere jarri genuen, gure ortua ondo zaintzeko. Benetan harro gaude egindako lanaz!

### Deba ibaia

Abenduan, ibaiak gainezka egin zuenean, hirugarren mailakoak Deba ibaiaren inguruko erronka lantzen genbiltzan. Irteera egin genuen ibaia behatu eta ikertzeko. Jarduera horrek, ikasleak norbere aisialdian non ibiltzen diren ikusi eta ikasleen bizipenak entzuteko aukera ere eman zigun. Gainera, gurasoak eta aiton-amonak ere gerturatu ziren eskolara euren garaiko istorioak kontatu eta argazkiak erakustera (Cristobal Colchón, irlako kontuak...).

Ibaiaren erronkari dagokionez, berriz, Deba ibaiaren ibilbidea eta gure ibaiak zeharkatzen dituen herrien inguruko informazioa ikasten aritu ginen.

Azkenik, ikasle bakoitzak Deba ibaian kokatutako ipuin bat asmatu eta bertan bakoitzaren ametsak, harremanak, irudimena eta bizipenak islatuta ikusi ziren. Euren ere izango dute zer kontatu euren ondorengoei herrian hain garrantzitsua den ibaiaren inguruan.



## GUTUNAK

### Soraluzeko eta Eibarko gerrako umeak

**JUAN RAMON GARAI**

INTXORTA KULTUR ELKARTEA  
ARRASATE

Intxorta 1937 kultur elkarteak asmo handiko proiektu bati ekin zion 2021ean. Proiektu horrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak abalatuta eta diruz lagunduta, erbestera behartutako haurren memoria identifikatu eta berreskuratzea du helburu. Frantzia, Ingalaterra, Errusia, Belgika, Katalunia, Txile, Argentina eta Mexiko bezalako herrialdeek hartu zituzten. Lana 2022an ere hedatuko da.

Elkartearen ustez, erbesteratze horrek Gipuzkoako 6.000 haur baino gehiagori eragin zien, hemen jaiotakoei edo beste leku batzuetatik etorritakoei. Gerrako haur

konsideratzen dituzte 1936an 16 urte arte zituzten guztiak. 1936ko gerran zuzenean parte hartu ez bazuten ere, haien testigantza Memoriaren pieza garrantzitsutzat jotzen da, gatazkaren ondorio sozial, fisiko eta afektibo mingarriak jasan baitzituzten. Erbestera bidali zituzten matxinatu frankistek, italiarren eta alemaniarren laguntzarekin, euskal populazioaren aurka egindako bonbardaketa indiskriminatuetatik babesteko.

Laster, Soraluzetik eta Eibartik igaroko dira, erbestealdi honen testigantzak eta irudiak identifikatu eta jaso ahal izateko. Orain arte, 357 identifikatu dituzte Eibarren (184 mutiko eta 173 neska) eta 70 Soraluzen (34 haur eta 36 mutil).

Oroimena beharrezko balioa da elkarrekiko errespetuan eta

bizikidetzaren baketsuan oinarritutako kultura benetan demokratikoa eraikitzeko, bai eta iraganeko gertaeretan eror ez gaitezen ere. Gertaera horiek berriro gertatzen dira gaur egun planetako leku askotan.

Pertsona horiek guztiak beren izen-abizenekin, bizi izan ziren tokiekin, bizi izan zituzten gorabeherekin eta, ahal den neurrian, argazkiak eta haien bizitzaren edo elkarrizketa sakonen historia laburra lortzea da lan honen helburua.

Horretarako, zuzeneko arretarako bulegoak jarriko dira Eibarren eta Soraluzen.

Dena den, bestela ere lan honetan parte hartu nahi dutenek elkartearekin harremanetan jartzeko, idatzi hona: [intxorta1937@gmail.com](mailto:intxorta1937@gmail.com) edo 678242031 eta 699669205 telefonoetan.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: [aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)

## KOMIKI TIRA



## HAUSNARKETA

**Zelan ikusten duzu egoera?**

Azken asteotan, denetik ari da izaten: Urkainako inbasioa, prezioen igoera, garraiolarien greba... Klean galdetu dugu ea igartzen den.



**ASIER EZENARRO  
ARANZIBIA**

"Banatzaileen prezio gorakada, erosketetan... igarri dut. Kapitalismoaren azken krisian, 2008an, neoliberalak esan zuten merkatua apur bat zuzenduta nahikoa zela baina orain ikusi da, zikloka, sakondu egiten dela krisia. Ez da gerraren eragina bakarrik".



**FRANCISCO APARICIO**

"Sustorik handiena Salamancan hartu nuen: depositoa betetzeko ia 100 euro! Lehen 70 inguru izaten zen. Bestalde, errekaduak nik egiten ditut eta zenbait produkturen prezioa bikoiztu ere egin da. Dena den, Errusiak kezkatzen nau gehien. Putin ez dago burutik sano".



**ITOITZ ALBERDI**

"Tailerrean igarri dugu. Materiala egiten da baina ezin da bidali. Prezioen igoera ere igarri dut, ogia, fruta, arrautzak, arraina... Gezurra dirudi erabakiak har ditzaketenak horrela ibiltzea. Erabaki batzuk hartzeko ez da horrenbeste pentsatu behar".



**ANA ISABEL URIBE**

"Frutan, arrautzetan... igarri dut prezioak igo direla, baina batik bat, gasolinan. Dena den, beldur gehien gerrak ematen dit, ez dago hain urrun. Putinek beldurra ematen dit, nire ustez, hark nahi du lehenagoko SESB-era (URSS) bueltatu eta gerra hurbil dago".

## PUNTUA



**OLATZ SEBAL**

**Zibersexismoa**

**M**aitasunean eta gerran denak balio duela entzun izan dugu sarri. Ez naiz hasiko esaldi honen zilegitasuna eztabaidatzen. Baina duela gutxi irakurritako zerbaitek gogora ekarri zidan esaldi hori. Stop Fisha elkarte feministak aditzera eman duenez, eduki pornografikoa erabiltzen dutenen artean, neska ukrainiarren bilaketak izugarri hazi dira azkenaldian. Pornozale horiek bilatzen ari direna, beste behin, emakume gazte (eta seguruenez ume) ahulena, defenda ezinenak eta bortxatzeko errazenak dira.

Intimitate sakonenean ere, bakarka masturbatzerakoan, fantasia nazkagarriekin kitzikatzen den gizarteko zati honekin partekatzen dugu bizitza, lana, ikasketak, aisialdia, eta agian ohea ere. Irudimenean bada ere, bortxatzaileak diren horiekin. Zibersexismoa heteropatriarkatuaren beste tentakuluetako bat da; ezin dugu gutxietsi, batez ere, gazteenek hau kontsumitzerakoan sortzen diren errealitatearekiko paralelismoak nahastera eramaten baitituzte. Izan ere, azken urteetan bideo pornografikoetako biolentzia imitatu ohi dituzten jokabideak asko hazi dira. Zerk kitzikatzen gaituen ere politikoa da, batez ere atzean arma eta drogen mailan dagoen pornoaren industria matxista badago, fantasia ilun eta nazkagarrienak gure etxe eta erretinetan sartzeko prest.

N: GIZONEK GERRA EGIN, HAUR-EMAKUMEEK PAIRATU





# Ikasle, euskaltegiaren babesean

Berrogeita bost dira aurtengo ikasturtean AEKren Soraluzeko euskaltegian izena eman duten herritarrak. Euren artean askotariko jatorriak, adinak eta motibazioak aurki litezke eta muestra gisa, erreportaje honek horietako seiren testigantzak jaso ditu.

Testua eta argazkiak: **Egoitz Unamuno.**





Arratsaldeko txandako ikasleak  
Euskaltegian.

Etorri berrientzako Aisa ikastaroko  
ikasleak.

**2** 016ko azken neurketa soziolinguistikoaren arabera, soraluzetarren artean euskararen ezagutza datuak ondorengoak dira: %59,39a euskalduna da, %25,23a erdalduna eta %15,38a ia-euskalduna. Multzo guzti horietako herritarrek jotzen dute euskaltegia baina ohikoa den moduan, aurten ere, euskaltegian matrikulatu diren 45 ikasleen artean (pandemia aurreko kopuru bera), ugariena erdaldunak edo ezagutza maila oso baxua duten herritarrek dira, nahiz badiren ia-euskadunak eta euskaldunak ere. Motibazioen artean, pragmatikoa da nagusi, alegia, euskara lanerako eta kurrikulumerako ikasi edo hobetu nahi dutenena, baina badira eguneroko bizitzan erabiltzeko ikasten dihardutenak ere, tartean, gurasoak, jubilatua... Bestalde, nabarmena da, generoen arteko aldea; aurten, ikasleen %77a emakumezkoak dira.

### Oinarrizko mailatik EGARA

Momentuan, Soraluzeko euskaltegian hiru talde daude martxan: goizekoa (9:30-11:30), bazkal ostekoa (14:30-16:30) eta iluntzikoak (19:30-21:30), A1etik (oinarrizkoa) C1 bat (EGA) mailara bitarteko ikasleak batzen dituena. Lehen biak astean lau egunez batzen dira astelehenetik eguenera eta iluntzikoak, berriz, bi egunetan, astelehenetan eta eguaztenetan. Horrez gain, neguan euskaraz azkar ulertzeko ikastaro pilotua egin zen eta otsailetik ekainera bitartean martxan dago etorri berrientzako Aisa ikastaroa. Jarraian, sei ikasleren testigantzak.

### "Euskal komunitatea asko gustatzen zait"

**CRISTINA CUENCA** VALLADOLID, 1981

Duela 13 urte etorri zen Soraluzera bizi izatera Valladolidetik eta handik urte batzuetara eman zuen izena euskaltegian lehen aldiz baina lehen alaba izan zuenean laga behar izan zuen. Irailean izena eman zuen berriz euskaltegian eta gustura dihardu. "Irakaslea eta ikaskideak oso jatorrak dira eta oso giro ona dago. Dagoeneko badakizkit etxeko gauzen izenak, animaliak, pertsonen ezaugarriak... eta orain ikasten dihardut urteak, agurrak, erosketetako elkarrizketak... Azkenengo hilabeteetan igarri dut asko aurreratu dudala. Orain



ulertzen dut elkarrizketak nondik nora doazen. Liburu bat hartzen dudanean ere ulertzen dut gehiago... Gustatuko litzaidake, behintzat, ulertzea". Berba egiteak "oraindik lotsa" ematen dio baina badihardu horretan ere pausoak ematen.

"Ahalegintzen naiz alabekin berba egiten, gurasoen whatsapppeko taldean, lagunekin. Esaldi solteak: non geldituko garen, zein ordutan... Nik esaten diet egiteko euskaraz, iaksi ahal izateko. Hori bai, kaleko euskara oso diferentea da. Umeei ulertzen diet ondoen, garbiago ahoskatzen dutelako".

Gainerakoan, euskaldunen komunitatea "asko" gustatzen zaio. "Batez ere gustatzen zait euskaldunek euren kirolak, hizkuntza, kultura, paisaia... defenditzeko duten jarrera hori. Uste dut horretatik asko dugula ikasteko". Musika ere atsegin du, bereziki herri musika eta umeen kantak. Azken hauek "oso politikak, kariñoak, goxoak" direlako.

### "Ahozkoa da hobetu nahi dudana"

**UMME KHAN** PAKISTAN, 2005

Urduera du ama-hizkuntza eta ingelesa, gaztelera eta euskara ere menderatzen ditu. Soraluzera etorri zenean zortzi urte zituen eta orduan izan zuen lehen hartuemana euskararekin. "Ni ez naiz oso ondo gogoratzen baina lagunek esaten didate oso bizkor ikasi nuela euskaraz. Egia da etorri nintzenean curiositate handia piztu zitzaidala euskararekin, hitzen esanahia jakiteko eta abar eta uste dut curiositate horrek lagundu zidala ikasten. Eskolan ikasi nuen". Orain, Batxillergoa egiten dihardu Eibarren eta EGA titulua ateratzeko asmoz



eman du izena euskaltegian. "Idatziz nahiko ondo moldatzen naiz eta irakurri ere oso erraz egiten dut, baina berba egiteko asko pentsatu behar dut eta hori da hobetu nahi dudana". Gustura dihardu euskaltegian. "Espero nuena

baino esperientzia hobea ari da izaten. Irakaslea oso atsegina da eta horrek asko laguntzen du". Gainerakoan, Ummek ez du euskararik erabiltzen familian eta lagunartean baina bai noizbehinka "dendetan eta". Hala, "kanpotar itxura" izateak eragozpen gehigarri bat erantsi dio euskaraz egiterako orduan, batez ere ezezagunekin. "Batzuek kanpotar itxura hartzen didate eta orduan automatikoki gaztelera berba egiten hasten dira nirekin baina nik euskaraz erantzuten diet berriz eta azkenean euskaraz egitea lortzen dut".

Kulturari dagokionez, "Txoriak txori" kantua da gehien gustatzen zaiona, "duen esanahiarengatik".

## "Gustatuko litzaidake euskaraz ulertzea"

**DAMARIS OJEDA** VENEZUELA, 1980

Duela 5 urte etorri zen Euskal Herrira bizi izatera bere bikotearekin batera eta harrezkero Osumazpi baserrian bizi da. "Nire bikotearen aita Soraluzekoa zen, euskalduna. Lehen aldiz, berari entzun nion euskaraz. Lagun euskaldunekin batzen zenean egiten zuen. Behin galdetu nion zela esaten zen 'te amo' euskaraz eta berak papertxo batean idatzi zidan. Oraindik gordeta daukat paper hori".

Damarisek gaztelera menderatzen du eta ingelesa oinarrizko mailan. Euskaraz ere ikasi nahi luke eta horregatik eman du izena etorri



berrientzako Aisa ikastaroan. "Oso gustura ari naiz ikastaroan eta gustatuko litzaidake heltzea euskara ulertzea eta oinarrizko elkarriketak izateko besteko gaitasuna eskuratzera, bikotearen familiarekin

euskaraz berba egin ahal izateko, lanerako eta gainerako harreman sozialetan erabiltzeko". Lau urteko semeak ere izan du eragina euskarara hurreratzeko erabakian. "Semea hemen jaio da, hemengo eskolara doa eta logikoa den moduan hemengo hizkuntza berba egiten du eskolako lagunekin, izebarekin etxean. Nik ipuinak irakurtzen dizkiot euskaraz, nahiz eta ez ulertu. Hizkuntza polita da. Gustatzen zait euskarak duen soinua entzutea".

Gainerakoan, bertsolariak ditu gustuko, "Gaztañerreko bazkarian ezagutu nituen eta txundituta gelditu nintzen". Eguzkiloreak ere gustatzen zaizkio, "duten esanahi sinbolikoarengatik".

## "Jubilatu arte ez dut denborarik hartu"

**AVELINO BENAYAS** VILLALOBOS (ZAMORA), 1956

1974. urtean etorri zen Soraluzera, 18 urte zituela eta geroztik hemen egin du bizimodua: "lagunak, familia, dena". Duela hiru urte eman zuen izena euskaltegian. "Ia berrogeita hamar urte daramatzat hemen eta iruditzen zait ondo legokeela bizi naizen herriko hizkuntza ezagutzea. Mendia ez badator Mahomarengana, ba, Mahomak joan beharko du mendira. Kar, kar, kar! Lehenago egin behar nuen baina jubilatu naizen arte ez dut horretarako denborarik hartu". Euskaltegian sartu zenean "berba solte batzuk



besterik ez" zekizkien. "Orain, bi ikasturte eta erdiren ostean, lehen baino bastante gehiago ulertzen dut. Harrapatzen ditut berba batzuk... Nire zailtasuna da ez nagoela murgilduta euskaldunen artean... Eta beste bat hemen herri

bakoitzean berba egiten duzuela gogoak ematen dizuen moduan. Kar, kar, kar. Ez daukat nik ikasteko gaitasun handirik baina gustura dihardut eta asmoa dut jarraitzeko ahal dudana bitartean. Iruditzen zait euskaltegira etortzea modu ona dela denbora aprobetxatzeko. Eta kontuz ibili ze laster Pil-pilean irakurtzen ere hasiko naiz eta! Kar, kar, kar...".


Euskal kulturatik Mikel Laboaren eta Benito Lertxundiaren kantak ditu gustuko. "Ez didazu sinetsiko baina kanta batzuekin ileak tente jarri izan zaizkit eta malkoak atera ere bai. Letra ulertu barik, kantatzeko moduarengatik, transmititzen didanarengatik".



### "Osakidetzan lan egiteko beharrezkoa da"

**GOIZANE PLATA** (SORALUZE, 2003)

Goizane irailean hasi zen euskaltegian eta idatzizkoan trebatzea du helburu, ondoren EGA azterketa gainditu ahal izateko. "Ahalegindu nintzen EGA ateratzen baina ez nuen lortu idazmen froga gaintzerik. Gazteleraz pentsatzen dudanez, kosta egiten zait pentsatutakoa euskaraz idaztea. Aurten astia neukanez, erabaki nuen euskaltegia hastea idazmena lantzeko eta ingelesezko akademian ere bai, First titulua ateratzeko". Datorren ikasturtean, erizaintza ikasten hasteko asmoa du, "ahal bada, euskaraz", eta horrekin batera,



etorkizunean noizbait Osakidetzan lan egiteko itxaropena ere bai. "Badakit Osakidetzan lan egin ahal izateko beharrezkoa dela euskaraz jakitea, bai eguneroko lanerako eta baita puntuak eskuratzeko ere".

Horregatik dihardu buru-belarri euskaltegian, batxilergora arteko ibilbidean lortu ezin izan duen maila eskuratu nahian. "Eskolan aditzak eta zuhaitzak lantzen genituen baina popurri samarra zen, ez zegoen helburu zehatzik. Euskaltegian berridazketak egiten ditugu, idazlanak... Helburuak eta metodologia zehatzagoak dira". Gustura joaten da astean, 14:30etik 16:30era bitartean.

Biografia linguistikoari dagokionez, Goizanek gaztelera jaso du etxean eta ikasketak euskaraz egin ostean, gaur egun euskaraz lagunekin, bikotearekin eta kalean egiten du. Gaztea entzuten du eta Zetak musika taldea du gustuko.

### "Betidanik gustatu zaizkit hizkuntzak"

**SILVIA SARMIENTO** (ELGOIBAR, 1975)

Silvia duela 20 urte etorri zen Soraluze bizi izatera. Ama hizkuntza gaztelera du eta ingelesez nahiko ondo moldatzen da. Euskaraz ulertu dena egiten du baina berba egitea "super zaila" egiten zaio, ez duelako segurtasunik. "Eskola garaian astean bi ordu izaten genituen euskaraz. Amak 10 urte nituela erooten ninduen euskaltegiak eskaintzen zituen saioetara". Orain, dioenez, Soraluze Elgoibarren baino gertuago sentitzen du euskara. "Elgoibarko nire lagunek gaztelera egiten dute. Hemen gurasoen artean euskaraz



egiten dute eta ni ere ahalegintzen naiz. Batzuetan ez dut jakiten euskaraz nola esan... Bost urteko alaba dut eta berarekin bertako euskara ere erabiltzen dut 'dosta' eta abar, berari entzuten diodalako".

Urrian hasi zen euskaltegia eta B2 maila eskuratu nahi du (oinarrizko maila ahoz eta idatziz). Administrazioa ikasten dihardu eta lan bila dabil eta horrez gain gustatu egiten zaio hizkuntzak ikastea. "Betidanik gustatu izan zait hizkuntzak ikastea. Hogeita bi urterekin Londresen egon nintzen eta orain hemen nago. Oso esperientzia ona da euskaltegiakoa, jendea ezagutzen delako eta hizkuntza praktikatzeko delako. Euskara oso hizkuntza polita da, soinuagatik, gozoa da entzuteko. 'Muxu' berba gustatzen zait". Euskarazko kultur jardunari dagokionez, Gatibu musika taldea gustatzen zaio eta ETB3 ikusten du alabarekin.



📍 Otaola Hiribidea, 22 - Eibar

**Kontzesionario eta zerbitzu ofizialok**

Ibilgailu berriak  
 Bigarren eskuko ibilgailuak  
 Mantentze-zerbitzu azkorra  
 Mekanika  
 Karrozeria  
 Ibilgailuen alokairua



DACIA



@grupogaursa
 
 www.gaurso.com
 

 674 801 717

Erronka berriei aurre egiteko, aldatu beharra dago.

Iritsi da **TicketBAI.**

Enpresek aurrera egiten dutenean, Gipuzkoak aurrera egiten du.

TicketBAI

GIPUZKOAN

gipuzkoa.eus/ticketbai

# "Erraza da postura okerrak hartzea"

LEIRE LASA ENTRENATZAILE PERTSONALA

Martxoa hasieratik, Leire Lasa (Bergara, 1986) Fitness aholkularia da Arane kiroldegiko gimnasioan. Hamabostean behin eskaintzen du zerbitzua, BPXPort enpresak kudeatuta. Apirilaren 8an eta 29an, maiatzaren 13an eta 27an eta ekainaren 10ean eta 24an, 18:00etatik 19:00etara dira hurrengo hitzorduak.

**Birritan eskaini duzu zerbitzua; zelako erantzuna izan du?**

Oso ona. Lehen egunean hiru emakume etorri ziren, bigarrenean lau.

**Zer erakusten duzu?**

Ariketak ondo egiteko teknikak; mankuernekin, barrekin, kettlebellekin, makinekin, poleekin... Fitness aholkularitza lesioak prebenitzeko ere baliagarria da eta baita ere indarra hartzeko ariketak zelan egin ikasteko.

**Uste duzu ezjakintasuna dagoela?**

Bai. Gaur egun, Internetek asko laguntzen du baina jakin egin behar da nondik ikasi ere bai. Nahiz eta bideoek erakutsi ariketak zelan egin, gorputzaren kontzientzia garatua izan ezean, oso erraza da postura okerrak hartzea. Teknika zelan egin jakin behar da.

**"NAHI DUTEN ERABILZAILLEENDAKO ENTRENAMENDU PERTSONALAK ERE PLANIFIKATZEN DIRA"**



Leire Lasa gimnasioan.

**Zeini zuzendutako zerbitzua da?**

16 urtetik gorakoa izan behar da, gazteagoak ezin baitira gimnasia sartu. Orain arte etorri direnak 40 urtetik gorako andreak dira. Gazte gehienek badute ezagutza hori eta mutil askok ere bai. Beste batzuk lotsatu egiten dira, ez dakizkitelako makinak erabiltzen. Halakoendako oso aproposa da. Erretiratuendako ere bai. Adinarekin indarra eta muskulazioa galtzen doa eta jausteko arriskua handitu egiten da, askotan indarra edo oreka ez izatearren. Eguneroko gauzatarako ere behar da indarra. Hemen oreka, elastikotasuna, mugikortasuna, erresistentzia... lantzen dira.

**Besterik nahi baduzu gaineratu...**

Jendea etortzera animatuko nuke. Eskaera balego, hainbat goizetan ere jarriko dute aholkularia eta zerbitzu osoagoa izango litzateke, ze entrenamendu pertsonala egiteaz aparte, pertsona horrek segimendua ere izango luke.



Sorako jokalaririk.

## Sorakoek esperantza bizirik

Sorak Gorengo mailari eusteko esperantzari bizirik eusten dio, joan den asteburuan Astigarragaren kontra erdietsitako garaipenari esker. Garaipen horrek sailkapenaren azken postuetatik urruntzeko aukera emango dio Sorako gorengo taldeari. Izan ere, Kopako txapelketako lehen bi partiduetan Sorak puntu bakarra eskuratu zuen eta ondorioz, sailkapeneko azken postuan zegoen.

Dena den, oraingo asteburu honetan, ligaxkako lehen itzuliaren laugarren eta azken partida jokatuko du Sora Futbol Taldeak, Azpeitin, hango Ikasberri taldearen aurka eta bertan punturen bat eskuratzea ezinbestekoa izango da Aste Santu ostean jokatuko den ligaxkaren bigarren itzulira lasai heltzeko.

Izan ere, otsailean hasi zuten Kopako txapelketan zortzi partida besterik ez dituzte jokatuko.



# Ekinean Debarrenean

**dkt**  
Debarreneko  
Komunikazio  
Taldea

Jende askok izan du noizbait ekiteko ideia bat edo beste, baina gutxitan eramaten dira aurrera ideia horiek, ekiteko ideia bat baino gehiago behar delako. Ekiteko ausardia behar da, ilusioa, baikortasuna, baina ahaztu gabe ekintzaile izateak arriskuak ere badituela. Ekiten hasi nahi duenak intereseko informazioa topatuko du orriotan.



# Ekintzaitzaren abentura



**JUAN ÁNGEL BALBÁS**

DEBEGESAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Schumpeter-en azalpenetara iritsi gabe (suntsipen sortzailea), ekitea ekintza bat garatzea da, izaera ekonomiko edo sozialeko jardue-  
ra bat garatzea. Baina, zerk bultzatuta ekiten dugu? Motibazioak askotarikoak izan daitezke, eta, seguru asko, pertsona bakoitzak arrazoiz ezberdinak bultzatuta egingo du edo egin izan du. Azken batean, ekiteko ekintzak oinarri psikologikoak, soziologikoak, ekonomikoak, esperientziazkoak, ezagutza handikoak... izan ditzake. Esan daiteke, hala ere, kasu gehienetan asmo edo ideia bat betetzeko helburuarekin hasten dela, edo aipatutako oinarrietako batetik eratorritako behar bat betetzeko egiten dela.

Bizi garen testuinguruan, duela hogeit urtetik hona, “beste batzuek ekin diezaioten” dioen aforismoa praktikan jarri dugu Europa mailan, eta hortaz, ekintzaitza ordu txiki-txiki dago. Izan ere, Europako herritarrok ulertu dugu munduko fabrikek Asian egon behar dutela eta gure bizimoduak bestelakoa izan behar duela. Baina, pandemia batek eta gerra batek agerian utzi

du digu ez dugula aurrez definitutako autosufizientzia-eredu energetikorik, edo gure herrialdean ez edukitzeak garestitu egiten dituela aluminioa, olio edo garia. Hori guztia gertatzen da ekonomiaren sektore guztietan ekiteko nahia galduz joan delako; bitzta hobea, erosoagoa (itxuraz) lehenetsi dugu baina ondorioz, gero eta mende-kotasun handiagoa eragin digu.

Debabarreneko egoera oso bestelakoa izan da orain arte, izan ere, sen ekintzailea izan dugu eskualdean betidanik. 1923an, eskualde honetan zegoen espiritu ekintzailea benetan garrantzitsua izan zen eta hala erakusten du Ignacio Anitua enpresaburuak Villalavellari bidalitako gutunean nola azaltzen dion “...3 gurpileko motorrak, ibilgailuak, bizikletak...” egiteko gaitasuna. Borondate ekintzaile haren ondorioz, Debarrenak oparotasun ekonomiko eta sozial nabarmena izan zuen, joan den mendearen amaiera arte iraun zuena. Gaur egun, oraindik gure inguruko beste edozein herrialderen bizi-maila homologagarria duen eskualde industrialia izatea ahalbidetzen digu.

Horregatik, Debegesan gure lana da ekintzaitzari buruz hausnar-

tzea, eskualdean hainbeste identifikatzen gaituen izpiritu ekintzaile hori bizirik mantentzeko. Gure gizartearen eta gure gazte-riaren kontzientziak mobilizatze-ko unea da, inoiz baino ezagutza handiagoa duen gizartea, ekintzaile izatera animatzeko. Ekintzaitza-jarduerak, gaur egungo merkatu-aukerak, gutxi edo bati-  
tere ez dute zerikusirik izango aurreko mendearen hasierako jarduerekin, baina aukerak dira baita ere eta hor daude: energia berriztagarriak, datuen analisia, hirugarren adinekoen beharrak, ekonomia zirkularra, meta bertsoa, mugikortasun elektrikoa, elikadura.

Aukera horretaz jabetuta, erakundeek eta enpresek benetako ekintzaitza-ekosistema jartzen dute pertsona ekintzaileen esku-  
ra (inkubagailuak, laguntzak, aholkularitza, industria-eragileen lankidetzak, BPTD Enpresa Elkar-  
tearen enpresa-harremanak, etab.).

Hausnarketa honen amaiera gisa, bizitzan abentura batean murgildu nahi duten pertsona guztiak animatzen ditugu, Debegesa eta Debarreneko gainerako eragileekin elkarlanean, ideia hori martxan jartzeko.

**Argitaratzailea:** Debarreneko Komunikazio Taldea

**Erredakzioa:** Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

**Publizitatea:** Leire Rubio, Belen Ulazia, Dorleta Vidal, Oier Larreategi, Alex Turrillas

**Diseinua eta maketazioa:** Oier Larreategi

**Tirada:** 18710 ale



# Eskualdeko ekintzaileen laguntzaile

DEBEGESA

Debegesa Garapen Ekonomikora-ko Elkartek garrantzi berezia ematen dio ekintzaitzari. Horren adibide dira handik irten diren ekimen eta programa guztiak, eta han aurkitu ditzakegun azpiegiturak.

Ane Iturzaeta da Debegesako ekintzaitza teknikaria eta, esan digunaren arabera, mota guztietako proiektuak artatzen dituzte. “Bakoitza fase ezberdinetan etortzen da, baina fase guztietan laguntzeko prest gaude”, diosku.

Proiektu bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina jarraitu beharreko pausoak antzekoak dira guztietan. “Hasteko, ideia lantzen dugu erreminta ezberdinak erabiliz. Gero, merkatu kontrastea egitea gomen datzen dugu, ideia merkatuan txertatu daitekeen ikusteko, eta ondoren, bideragarritasun-plana egiten dugu. Proiektua bideragarria bada, hura martxan jartzeko pausoen inguruko informazioa errazten dugu: forma juridikoa erabaki, lizentzien izapideak zeintzuk diren azaldu, baimenak non eskatu...”, argitu digu Iturzaetak.

Aipatutako pausoetan bidelagun izateaz gain, proiektuei balio erantsia ematen saiatzen dira Debegesan, batez ere digitalizazioaren eta berrikuntzaren arloan.

Bidea osatzeko, azkenik, diru-laguntzen inguruko informazioa eskaintzen dute. Debegesak eskualdeko udalek eta bestelako erakundeek ematen dituzten laguntzen berri ematen du, eskaeraren lehenengo pausoak egiteko jarraituko beharreko epe eta pausoez gain.



Ane Iturzaeta.

## Make in!

Iturzaetak esan bezala, mota ezberdinetako proiektuak garatzen dira Debabarrean. Baina, industria da eskualdeko indarguneetako bat, eta, hori bultzatzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko asmoz, BPTD Elkartearekin batera ‘Make in!’ industria-ekintzaitza programa jarri dute martxan.

Lehenengo edizio honetan hiru enpresak hartuko dute parte apirilaren hasiko den prozesuan eta sei hilabetetan zehar parte-hartzaileek formakuntza-saioak eta aholkularitza jasoko dute, hainbat

**Informazio gehiago**  
**943 82 01 10**  
**telefonoan edo**  
**ekintzaile@debegesa.**  
**eus helbidean**

baliabide eskura edukitzeaz gain (lan-espazioak, finantzazio-aukerak...).

## Debabarreko ekosistema eta azpiegiturak

‘Make in!’ programan gertatzen den bezala, Debabarreko ekosistemak berebiziko garrantzia du ekiteko orduan. “Enpresak, formakuntza-zentroak, teknologia-zentroak, inkubategiak, azpiegiturak... ditugu eskualdean”, diosku Iturzaetak.

Debabarrean lau azpiegitura berezi daude ekintzaitzentzat: Izarra Centre Ermuan, Eibargunea enpresa-inkubagailua, Debegesaren eraikinean zabaldu berri duten ekintzaitzentzako gune berria eta Teknikerreko inkubategia. Azken hori Teknikerren egoitzan dago eta BIC Gipuzkoa enpresa-zentro berritzaileak kudeatzen du.

Eibargunean 15 metro karratuko zazpi modulu, bi bilera-gela eta office bat aurkitu ditzakegu. Azitain industrialdean dago eta, lanerako espazioa emateaz gain, Debegesak zenbait zerbitzu eskaintzen die bertan dauden enpresei (aholkularitza, ikastaroak...).

Debegesa ondoko ekintzaitzentzako gune berrian, ostera, bost bulego, bilera-gela bat, office bat eta gune irekia daude. “Berrikuntza eta teknologia arloak lantzen dituzten proiektuak erakarri nahi ditugu”, esan digu Iturzaetak. Gainera, gune irekia eta bilera-gela erabilgarri daude eskualdeko enpresa eta eragileentzat. Teknikerren, ostera, 35 metro karratuko sei gune daude.



# 10 urte ekintzaileak bultzatzen

IZARRA CENTRE

Izarra Centre ekimena 2012an abiatu zen, Ermuko Udalak sustatuta. Bere helburuen artean daude EAEko industria indartzen laguntzea, berrikuntza bultzatzea, espiritu ekintzailea sustatzea eta lurraldeko talentua lurrean mantentzea. Beti ere, hazkunde iraunkorraren bermatzaile gisa, bai ingurumenaren zein gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik.

Ekintzaitza-garairako espazioak eta coworking aretoak ditu, hala nola inkubazio, finkapen eta azeleraziorako guneak. Halaber, prozesu osoa bultzatzen laguntzeko mentoring programa espezializatu du martxan, lege eta lan ar-



Izarra Centre.

loetako aholkularitza zerbitzuak eskaintzen ditu, hala nola partaidetza-maileguak ekintzaitza-proiektuak finantzatzeko.

## Berrogei enpresatik gora

Izarra Centre berrikuntza-ekosistema gisa eratzen da, non enpresa finkatuek, pertsona ekintzaileek, unibertsitateek eta ezagutza-zentroek espazioa eta ikaskuntza partekatzen duten, garapen iraunkorraren erronka garrantzitsuei erantzungo dien eraldaketa sozial eta ekonomiko baterako balioa sortuz.

Gaur egun, 40 enpresatik gora daude espazio honetan. Beraien eskura jarritako zerbitzu eskaintza zabala, kalitatezko espazioak zein bultzatutako sare eta lankidetzak proiektuak erabakigarriak izan dira aukeraketa honetan.

## Zer eskaintzen dizue Izarra Centre ekosistemak?



### ELON

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

“Izarra Centre ekosistema funtsezkoa izan da ELONen biziraupenerako. Hasierakoak izan dira gure urterik ahulenak eta bertan izan dugu laguntza gehien. Azpimarratzekoak dira bertako instalazioak eta hauen kalitate maila. Gure kasuan kokapenak berak ere izan du zeresana aukeraketan: EAEko hiru hiriburuen erdian egoteak asko lagundu digu gure negozioa garatzeko orduan”.



### BAI.K

TEKNOLOGIA

“Izarra Centre leku aproposa izan da Bai.k-ren garapenerako, ez bakarrik edozein enpresa-proiektutarako azpiegitura eta baliabide enpresarial eta ekonomiko apartak izateagatik, baita hornitzaileei dagokienez gune estrategiko batean egoiteagatik ere. Bertako azpiegiturak, eskaintzen dituen zerbitzuak eta hango langileen laguntza funtsezkoak dira izaera teknologikoko edozein enpresa-proiektutarako”.



### GAIA EUSKADIKO TEII

INDUSTRIEN ELKARTEA

“Izarra Centre ideien eta negozioen garapenerako ekosistema aurreratua da. Ermuak duen estrategiak enpresen hazkundera, gazteen eta profesionalen garapena eta hiri erakargarri eta iraunkorago bat ahalbidetzen du, eta esfortzu handia egiten ari da esparru horretan. Bertako enprekin konpromiso handia du, baliabideak inbertitzen eta proiektuak bultzatzen, IoTBasque Izarra Lab living-lab da horren abididea”.



# IZARRA CENTRE

EKITEKO,  
HAZTEKO  
ETA LANKIDENTZAN  
ARITZEKO ESPAZIOAK

Zer eskaintzen dugu?

Zuretzako leku bat dugu, kokapen egoki batean, guztiaren erdian.  
Gertu eta ondo komunikatuta EAEko hiru hiriburuekin.



## 01. Ekin

Konta lezaguzu, zer behar duzu? Zure negozioa garatzen jarraitzeko leku pribatu bat? Hazteko espazio gehiago? Izarra Centre da zure lekua. Denetarik gune egokiak ditugu. Zuntz ultra-zabaleko konexioa duen azpiegitura modernoa eta mentoring zerbitzua kontrastatua (eskarmetuduna).



### Prestakuntza

Martxan jarri ahal izateko, enpresa-kudeaketarako prestakuntza jasoko duzu.



### Aholkularitza

Zure enpresa-proiektua diseinatzeko eta abiarazten lagunduko ditugu.



### Espazioak

Ekintzailetza-fase bakoitzerako espazioak: coworking-guneak eta bulego zabalak sendotzeko eta hazteko.



### Mentoring

Programak espezialistarekin onenak ditu, bide osoa beraien gidaritzapean egiteko.



### Networking

Enprekin konektatzeko eta nazioarte mailan erreferentziako sareak sortzeko ekitaldiak.



## 02. Berritu

Berrikuntza beharrezkoa da merkatu lehiakorretan bizirauteko. Berritzeak hazten eta edozein egoerara egokitzen laguntzen du, arrakasta izateko bermearekin. Arlo horretan lan egiten duten erakundeekin elkarlanean ari gara, eta zu ere horren parte izatea nahi dugu. Dibertsifikazioa eta lehiakortasuna sustatu nahi ditugu, erakundeen arteko lankidetzak publikoak eta pribatuak garatu, I+G+b eremu publikoan zehin pribatuan sustatu, eta prestakuntza eta ekintzailetza bultzatu.



IoT Basque Izarra Lab



Grabitatea



Zuntz konexioa



## 03. Hazi

Hazi gurekin. Zure hedapen-beharretara egokitzen diren espazio modulagarriak eta aldakorak. Bilerak eta prestakuntza egiteko gela komunak. Hazteko erabakian laguntzeko laguntzak eta dirulaguntzak.



## 04. Lankidetzak

Aukera berriak bilatzen ditugu enpresei hazten laguntzeko, eta, horretarako, hainbat eragilerekin batera egiten dugu lan. Enpresak gure proiektuen partaide egiten ditugu, lankidetzak-sareak aprobetxatuz hazteko aukerak edukitzeko.

# Ekintzaileen zerbitzura

DEBABARRENEKO IKASTETXE GEHIENETAN ABIAN DA URRATSBAT PROGRAMA

Hezkuntzaren esparruan, Debarrenean bada ekintzailletza bultzatzeko, lantzeko eta ikasleei eta ikasle ohiei bide horretan laguntzeko programa nagusi bat, Lanbide Heziketa lantzen duten hezkuntza zentro gehienetan eskaintzen dena: Urratsbat.

Eskualdeko ikastetxeen artean, besteak beste, IES Uni Eibar-Ermuak, Elgoibarko Meka Lanbide Eskolak, Mutriku BHI Institutuak, Kardala LH II Akuakultura Eskolak eta Eibarko Armeria Eskolak txertatuta dute Urratsbat programa euren ikasketa-lerroetan.

Ikastetxeotan, azken 10-15 urteotan ari dira programa hori eskaintzen eta oro har, modu oso positiboan baloratzen dute, nahiz eta baduen zer hobetu ere, Eibarko Armeria eskolako Iñaki Etxeberria Urratsbateko arduradunak azpimarratu duen moduan.

"Nire ustez, erakunde gehiegi daude arlo berean sartuta, kasu honetan, ekintzailletzan: udalak, ikastetxeak, SPRI-BIC, Debegea... Horrez aparte, finantzazio aldetik gabezia dagoela esango nuke; finantzazio hobea balu, Urratsbat programa asoz ere eragingorragoa

litzateke. Adibidez, zentzu horretan, Bizkaian Gipuzkoan baino baldintza hobek eskaintzen ditu diputazioak, dirulaguntza handiagoak eta gehiago daude".


## Aholkularitza, baliabideak...

Kritikak kritika, Armeria eskolako irakasleak bai uste du Urratsbat baliagarria eta lagungarria dela enpresa bat sortu nahi dutenendako, haren bitartez, aholkularitza integrala zein gutxienera baliabideak jartzen baitituzte negozio ideia bat dutenen eskura, bulegoak zein ikastetxeko ekipa-

**aurrez aurreko**  
**ATE IREKIAK**  
**MARTXOAK 29**

GOI MAILAKO ZIKLOAK 18:30  
ERDI MAILAKO ZIKLOAK 17:30

info gehiago gure  
webgune eta sare  
sozialetan



943 20 32 44  
eibar@armeriaeskola.eus  
www.armeriaeskola.eus



*"Etorkizun baten oraina"*



  
ArmeriaEskola<sup>x</sup>





Iñaki Etxeberria Armeria Eskolako UrratsBat programako arduraduna bulegoan.

menduak erabiltzeko aukera barne.

Programaren baliagarritasunaren erakusle da azken hamar urte pasatxoan Debabarreneko ikastetxeetatik eratorrita, hainbat enpresa berri sortu direla Urratsbat programa baliatuta.

### Enpresa berriak

Datu batzuk aipatze aldera, Armeria Eskolan, 22 enpresa sortu dira Urratsbati esker. "Gaur egun, 22 horietatik 15 bizirik daude eta 55 lagun daude haietan lanean", jakinarazi du Etxeberriak. Izen batzuk ere aipatu ditu: "Estrulaser Tubo (Legazpin), hiru bazkiderekin hasi eta orain 18 langile ditu; Durangaldeako Seobide marketin agentzia, 12 langile dituena edo Eibarko Infosec informatikako enpresa, lau langile dituena. Azken hori izan zen Urratsbaten bitartez sortu zen lehena".

Eskualdeko bestelako ikastetxeetan ere eman ditu fruituak ekintzaitza programa horrek. Esaterako, azken hiru urteotan, Meka Lanbide Eskolan hamaika kontsulta izan dituzte eta horietatik hiru enpresa sortu dira. Uni Eibar-Ermuan, berriz, programa abian dutenetik, 17 enpresa sortu

dira eta beste asko sortzeko aukerak aztertu dituzte eta Mutrikuko Institutuan autonomo modura sortu dituzte enpresa txikiak elektrizitate arloan.

### Doako zerbitzua

Urratsbat programan parte hartzea doakoa da. Berau eskaintzen duten eskualdeko ikastetxeetako ikaslea edo ikasle ohia izatea da baldintza bakarra. "Adibidez, nahikoa da Armeria Eskolako ikastaro batean parte hartzea, hura bukatu ondoren edo bitartean, Urratsbat programa erabili ahal izateko", dio Etxeberriak.

Uni Eibar-Ermuako Urratsbateko arduradun Nekane Fernandez de Arroiabek ere hori berori azpimarratu du: "Urratsbatek aholkularitza integraleko zerbitzua eskaintzen dio pertsona ekintzailari bere enpresa abian jartzeko prozesuan. Adina ez da kontutan

**"Laguntza guztiak eskaintzen zaizkie, negozioa sortzerako orduan eta baita sortu ondoren ere"**

hartzen dugun irizpidea, ikastetxeko ikasle edo ikasle ohi izatea baino. Gure lehen helburua ekintzaitza ezagutzera ematea da. Gure ikasleek merkatuan aurkitu ditzaketen aukera ezberdinak identifika ditzaten, besteen kontura lan egin edo beraien enpresa sortzea".

### Akonpainamendua

Mutrikuko Institutuko Urratsbateko arduradun Joseba Solabarrietak, bestalde, programak duen bidelagun izaera azpimarratu du: "Laguntza guztiak eskaintzen zaizkie, negozioa sortzerako orduan eta baita sortu ondoren ere, haiekin kontaktuan segitzen baitugu. Gainera, norberaren premiaren arabera antolatzen da guztia". Solabarrietak gaineratu duenez, nekeza da gazteengan ekintzaitza kultura bultzatzea, "denek nahi baitute funtzionario edo futbolari izan. Baina garrantzitsua da programa ezagutaraztea, burutik ken dezaten lanerako aukera bakarra dutela, besteendako lan egitea. Esplikatzeko zaie norberaren kontura lan egiteko aukera ere badagoela".

Meka Lanbide Eskolako Urratsbat programako arduradun Saioa Alberdik, berriz, ezinbestekoa ikusten du ikastetxeetan zerbitzu hori izatea: "Ikastetxean lanbide bat ikasi eta gaitasun tekniko eta "soft skills" direlakoetan (zeharkako gaitasunak) trebatu den ikasle orok, buruan negozio ideia bat izanez gero, berau ekonomikoki bideragarria den edo ez aztertzeko akonpainamendu zerbi-



Armeria Eskolako hainbat ikasle eskola-orduetan, martitzenean.

tzu bat eskaintzea ezinbestekoa ikusten dugu. Bailarako sare-enpresariala ereitea eta sustatzea da Meka Lanbide Eskolako apus-tuetako bat".

### Jarrera ekintzailea

Dena den, Urratsbat ez dago bakarrik bideratuta enpresak sortzera. Programa horren ardura duten eskualdeko irakasleek azpimarratu dute programak berak eskaintzen duen jakintzak ere baduela garrantzia.

Mekako Saioa Alberdik jarrera ekintzailea izatearen garrantzia azpimarratu du: "Ezinbestekoa iruditzen zaigu ikastetxetik pasatzen den ikasle orok dohai hori garatzea. Horretarako, ekintzailletza landu eta lan aukera gisa aurkezteaz gain, jarrera ekintzaillean eta pentsamendu sortzailean sensibilizatzen dira ikasleak. Sensibilizazio hori lan arlorako ezinbestekoa ikusten dugun arren, bitzita pertsonalerako ere oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Meka Lanbide Eskolatik pasatzen diren ikasle orori Urratsbat Programa aurkeztu eta azaltzen zaio, eta, honez gain, ekintzaile ezberdinak

ikastetxera gonbidatzen ditugu beraien ibilbidea gurekin partekatuz. Oso esperientzia erreala eta politik izaten ohi dira, non ikasleak ekintzailletza prozesu erreala batetako oinaze eta garai-penak zuzenean entzuteko eta bizitzeko aukera paregabea duelarik".

Idea bera azpimarratu du Mutrikuko BHI Institutuko Solabarietak: "Ekintzailletza lantzen dugu ez bakarrik enpresa sortzeko, baizik eta eguneroko bizitzan norberak izateko inizatiba eta bultzada, enpresa izaten bukatzen ez bada ere. Ikasketa prozesu bat delako. Eta ikasten dute prozedimendu eta kultura enpresariala eta ekintzailletza kultura. Hori interesgarria da euren bizitzarako".

### Gutxieneko jakintza

Hori bai, gomendio modura, Armeria Eskolako Iñaki Etxeberriak azpimarratu du enpresa bat sortu aurretik beharrezkoa dela gutxieneko esperientzia izatea garatu nahi den alor horretan: "Lehenengo ikasi egin behar da, gero laneira irten, zer dagoen ikusi eta ikasi eta ondoren etorri. Enpresa bat

muntatzeko behar da jakin alor horretan zeintzuk diren bezeroak, beharrak eta abar. Irauten duten ekintzaileen ezaugarri bat da ez direla zerotik hasi eta teknikoki bazutela gutxieneko jakintza. Diru poltsatxo bat ere beharrezkoa da, inbertsioa egin behar izaten delako eta beste ezaugarri bat da gustuko zerbait egitea, horrek balio erantsia dauka".

Bat egiten du ideia horrekin Mekako ordezkariak ere. "Ekintzaile on batek, batez ere, ezaugarri eta baldintza zehatz batzuk izatea eskatzen ditu (arrikuak bereganatzeko ausardia, arazoek ebazpenareko trebezia, komunikatzeko erraztasuna, ...), ez adin zehatz bat. Hala ere, ez da ohikoena 18 urtetik beherakoa den ikasle bat ekintzailletza ideia batekin bertaratzea".

**"Jakintza tekniko eta diru poltsatxo behar dira eta gustuko zerbait egiteak balio erantsia du"**

# Enpresa bat sortzeko bidelagun

## URRATSBAT PROGRAMA

UNI Eibar-Ermua zentroan Lanbide Heziketako hainbat ziklo eskaintzen dituzte. Informatikarekin, merkataritzarekin, administrazioarekin eta gorputz eta kirol jarduerekin zerikusia duten zikloak dira eta ikasleak lanerako prestatzen laguntzen dituzte. Lan mundura eman beharreko jauzia, ostera, ez da beti erraza izaten eta, aukera faltan, ikasle batzuek euren kabuz ekitea erabakitzen dute.

Ekintzaileek euren asmoak errealitate bihurtu ahal izateko jarraitu behar duten bidea bihurgunez

josita dago. Aurrean jartzen zaizkien oztopoak gainditu ahal izateko, Urratsbat programa UNI Eibar-Ermua ikastetxean ikasten diharduten edo ikasi dutenen bidelaguna da. Proiektua 2006/2007 ikasturtean jarri zuten martxan UNI Eibar-Ermuan Carmelo Oyarzabalaren ekimenez eta harrezkero ekintzaileek 17 enpresa sortu dituzte.

### Baliabideak eta sarea

Idea on bat edukitzeaz gain, ekintzaileek zenbait baliabide beharrik dituzte euren proiektuak garatu

ahal izateko. Normala denez, gehienek zerotik ekiten dute, eta, beharrikasetu ahal izateko, Urratsbat programan sartzen direnek UNI Eibar-Ermuako instalazioak eta ekipamenduak erabiltzeko aukera izaten dute.

Ekintzaileek, gainera, une bakoitzean behar duten aholkularitza jasotzen dute bere ibilbidearen lehen urtean. “Horrela, lan-munduan sartzera animatzen dira, beren negozio-unitatea sortuz”, diote UNI Eibar-Ermuak.

Urratsbat programa Hego Euskal Herriko hainbat zentrotan

**IZAN EKINTZAILE!!**

**UNI EIBAR ERMUA**

Otaola Hiribidea, 29,  
20600 Eibar, Gipuzkoa  
943 89 92 11  
idazkaritza@uni.eus  
www.uni.eus | @uni.eus

- MERKATARITZA JARDUERAK
- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- + ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ESKAINTZA PARTZIALA ARRAZALDEZ
- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA
- MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- ZIBERSEGURTASUNA INFORMATIZAZIOAREN TEKNOLOGIEN INGURUNEETAN

ERDI MAILAKO TEKNIKARIA  
 GOI MAILAKO TEKNIKARIA  
 ESPEZIALIZADORA



eskaintzen dute eta EAEn 321 enpresa sortu dira orain arte (91 Gipuzkoan, 201 Bizkaian eta 29 Araban; 8 EAetik kanpo). Horrela, bertan parte hartzen duten Lanbide Heziketako zentroek eta sortutako enpresek Urratsbat sarea osatzen dute, urratsbatsarea.

eus webgunean ikusi daitekeen bezala. Euskadiko ekintzaileen-tzako erreferentzia bihurtzea da sarearen erronka. Horretarako, bi helburu nagusi ditu: enpresen emaitzen kontua hobetzea eta Urratsbat programaren espirituari eustea.

Programaren inguruan informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, [info@urratsbatsarea.eus](mailto:info@urratsbatsarea.eus) helbidera idatzi daiteke edo, bestela, UNI Eibar-Ermuan programaren arduradunarekin harremanetan jarri (943 899 211 - [urratsbat@uni.eus](mailto:urratsbat@uni.eus)).

# "Urratsbaten papera berebizikoa izan da ekiteko orduan"

OIHANE GARITAGOITIA ETA SONIA AMIAMA SUSTRAI

Eibarren dagoen Sustrai ongizate zentroak Urratsbat programaren laguntza jaso zuen proiektua aurrera ateratzeko. "Osotasunean pertsona bat lantzeko lekua da Sustrai", Oihane eta Soniak esan digutenaren arabera. Hau da, gorputza barrutik eta kanpotik zaintzeko aukera ematen dute. Horrela, nutrizio-hezkuntza, kobido masajea eta psikoterapia zerbitzuak eskaintzen dituzte.

**Gorputza barrutik eta kanpotik zaintzeko zerbitzuak eskaintzen dituzue. Adin guztietako pertsonei zuzenduta daude?**

SONIA: Bai eta horrez gain, psikologia arloan gero eta eskaera gehiago ari gara ikusten, batez ere soziohezkuntzaren arloan, eta zerbitzu hau ematen hasiko gara seguruenik.

OIHANE: Familiekin interbentzioak egiten hasi gara. Psikologiko kasu asko ditugu: umeak,

familiak, nerabeak, banaketa-prozesuak...

SONIA: Bestetik, hemen erabiltzen ditugun produktuak saldu ere egiten ditugu. Osasuna zaintzeko produktuak dira, toxikorik gabekoak eta biodegradagarriak. Zuk erabiltzen duzuna ona bada, naturarentzat ona da, eta alderantziz.

**Nola sortu zen Sustrai martxan jartzeko ideia?**

SONIA: Oihane ezagutu baino lehen, buruan bueltaka nuen horrelako proiektu bat sortzeko ideia eta, justu, Oihane agertu zen. Bera

**"Hasieran, proiektua zein egoeratan zegoen aztertu zuten eta bidea egiten hasi ginen, gure beharretara egokituz"**

psikologoa da eta horrek proiektua biribiltzen zuen.

OIHANE: Soniak, ostera, Gizarte Langile bezala egin izan du lan, gorputza kanpotik zaintzeko tratamendu naturalak ematen ditu eta, horrela, bakoitzak bere ekarpenak eginez, zerbitzu integrala eskaintzeko aukera ikusi genuen. **Idea edukizetik proiektua martxan jarri arte, nolako pausoak eman behar izan dituzue?**

SONIA: Bide horretan pixka bat bakarrik sentitu gara. Ni eszedentzian nengoenez eta Oihane beste lan batetan, ez genuen dirulaguntzarik jasotzeko aukerarik izan. OIHANE: Ekonomikoki laguntza gutxi jaso dugu.

**Egoera horretan, nola egin ahal izan duzue aurrera?**

SONIA: Urratsbaten papera berebizikoa izan da eta, noski, baita jaso dugun aholkularitza zerbitzua ere.



## "Urratsbatek ekintzaileentzako plataforma bat du eta saretzeko balio izan zigun"

sare sozialak kudeatzea, denbora behar da eta lanketa egokia eskatzen du. Ahoz ahokoak ondo funtzionatu digu.

### **Orain dela urtebete jarri zenuten martxan Sustrai. Zer sentitu zenuten?**

OIHANE: Oraindik bertigo pixka bat dugula esango nuke. Hasieran proiektua modu batean definitu arren, beti gabilta hobetzeko asmoez. Beraz, erabakiak hartzeko orduan beti dugu zalantza hau: Ondo egiten ari gara, ala ez?

SONIA: Inoiz ezin zara lasaitu, beti egon behar zara hurrengo pausoa pentsatzen. Adibidez, aipatutako soziohezkuntza proiektua martxan jartzeko, lan asko egin dugu aurretik.

OIHANE: Ideia berriak eduki arren, gure esentzia ez galtzen saiatzen gara. Beraz, behar berriei egokitu gara gure oinarriak galdu barik.

### **Nolako izan da Sustrairen hasierako urtea?**

SONIA: Orain ari gara ikusten urtebeteko lanaren fruitua. Hasieratik esan ziguten urtebete inguru itxaron beharko genuela lehen bezeroak egiteko eta horrela izan da. Aurrera egiteko gogo askorekin gaude.

### **Urratsbat bidelagun duzue oraindik?**

OIHANE: Eurekin harremanetan jarraitzen dugu. Guretzat probetxugarriak izan daitezkeen gauzen berri ematen jarraitzen dute eta eskertzen da. Laguntza hori edukirik barik zaila da gauza batzuen berri izatea.

Sustrai ongizate zentroko Oihane Garitagoitia eta Sonia Amiama. **SUSTRAI**

OIHANE: Nahiz eta langabezia ez egon, ekintzaileentzako formakuntza jasotzeko aukera izan dut Urratsbati esker: proiektu bat nondik hasten den ikusi, proiektu ekonomikoa nola egin... Egiten ari ginena ondo zegoen ala ez jakiteko balio izan digu.

### **Nola egin zenuten bat Urratsbat programarekin?**

OIHANE: UNIk bertako ikasleen eta ikasle ohien eskura jartzen duen programa da Urratsbat. Nik batxilergoa egin nuen han eta horregatik izan dut programan parte hartzeko aukera. Edozein laguntza ondo zetorkigun sasoi hartan.

### **Zein pauso jarraitu dituzue Urratsbaten barruan?**

OIHANE: Hasieran, proiektua zein egoeratan zegoen aztertu zuten eta, horren arabera, bidea egiten hasi ginen, gure beharretara egokituz. Gainera, Urratsbatek ekin-

tzaileentzako plataforma bat du eta saretzeko balio izan zigun. UNIk koordinatzailearekin etengabe egon gara harremanetan eta gure proiektuarentzat lagungarriak izan daitezkeen gauzen berri eman digu: dirulaguntzak, formakuntza, kanpo-harremanak, hedapena...

### **Zein izan da bidean aurkitu duzuen zailtasunik handiena?**

SONIA: Bezero berriak sortzea. Horretarako, ahoz aho eta sare sozialen (Google, Instagram...) bitartez eman dugu gure proiektuaren berri.

OIHANE: Hala ere, zaila da zentroan egin beharreko lana egiteaz gain

## "Ideia berriak eduki arren, gure esentzia ez galtzen saiatzen gara"

# "Gure helburuetako bat ekintzaile gehiago gerturatzea da, eta horretan dihardugu"

LEIRE BERASALUZE EKINGUNE ELKARTEKO PRESIDENTEA

Hainbat jardueratako 32 ekintzailek (Arrasaten dago bat eta Debabarrenean gainontzekoak) osatzen duten Ekingune elkarteak 10. urtemuga du aurten. Iaztik lehendakari karguan diharduen Leire Berasaluze Amuategi eibartarrak eman digu elkartearen jardunaren berri.

## **Ekintzaileen arteko lankidetzak eta sustapenerako elkartea da zuena. Nola egiten duzue lan lerro nagusi horietan?**

Elkartekide guztiok gara ekintzaile; batzuk beharrak bultzatuta, beste batzuk beren ametsetako ideia martxan jarri nahiarri jarraiki. Kideetako batzuk urte nahikotxo daramatzagu ekin genionetik, edo ekiten hasi ginenetik, eta gure betebeharra hasiberriei laguntzea da, haien lana sustatzea.

Askotan elkarrekin egiten dugu lan, proiektu beraren atal guztiak kideen artean estaliz. Gainera, gure bezero batek elkartekide baten zerbitzuen beharra izanez gero, kontaktuan jartzen ditugu.

Halaber, guretzat oso garrantzitsua da networking-ak egitea, beste elkarte batzuekin, edo nahi duen autonomo edo enpresari

ateak ireki eta norbere produktua edo zerbitzua ezagutzera eman eta sinergiak lortzea. Berriz ere hasi gara halako bilerak egiten eta espero dugu pandemia aurreko mailara itzultzea.

## **Zer baliabide eskaintzen diezue ekintzaileei?**

Ekitea polita izan daiteke, baina baita nekeza ere. Gure xedea ekiten duzunean erorikoen aurkako "sare" hori ehuntzen laguntzea da. Baliteke zure ideia ona izatea, baina beste hainbat gauza behar izaten dira. Laguntzak egoten dira ekiteko, baina behin enpresa martxan, nola lortu lehen bezeroa, nola egin aurre ziurgabetasunari, nola saldu? "Soft skills" deritzen gaitasunak ere faltan izaten ditugu askotan. Horietan trebatzeko baliabideak ematen ditugu, eta horiekin lotutako ekitaldiak antolatzen ditugu.

## **"Ekitea polita izan daiteke, baina baita nekeza ere. Gure xedea bide horretan laguntzea da"**

## **Askotariko ekimenak egiten dituzue Ekingunek. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?**

Batetik, AurreraEkin proiektua, ekin aurretik, gure burua aztertu eta ekitea egokia den ala ez, edo zein gaitasun hobetu beharko ditugun eta horiek nola landu hausnartzen laguntzen duena. Bestetik, OnEkin negozio-ideien lehiaketa dugu; gaur egun enpresa sendoak diren askok irabazi dute OnEkin saria: Arkigreen, Fixme, Kaxa, Eibarrooms, ScrapAd...

Horiez gain, Hamarretakoak Ekingunerekin egiten ditugu hilero, ekintzaile gisa interesatzen zaizkigun gaiei buruzko hitzaldi baten ondoren, hamarretakoan networking-a eginez. Eta Marketing Day eguna, emakume ekintzaileei zuzendutako Womenekin, Fuck-up Day delakoa (porrotak beste modu batean ikusteko) edo GabonEkin eguna (gabon bazkariarekin) ere baditugu. Adituak eta esperientziadunak gonbidatzen ditugu horietara.

## **Ekintzaile gisa, zein dira aurre egin behar izaten zaien zailtasun nagusiak?**

Betidaniak izan da arazoa lehenengo bezeroak lortzea; esperientzia-





Leire Berasaluze.

rik ez baduzu, bezerorik izan ez baduzu, zaila izaten da jendeak zugan sinestea. Enpresa handien ondoan, gehienbat. Gaitasun edo trebezia batzuk ere garatu behar izaten dira: likidezia falta, nola aurkeztu zure burua besteen aurrean, nola saldu zure produktua... zalantzas betetako bidea da.

#### **Eta onurak edo abantailak?**

Uste dut bakoitzak bere esperientziaren arabera erantzungo diola galdera honi. Nire kasuan, aukera eman dit proiektu desberdinak aurrera ateratzeko eta nolabaiteko malgutasuna izateko nire bizi-tzan; lorpenak ere gehiago os-

patzen dituzu. Hogeita bat urte daramatzat itzulpengintzaren munduan; zazpi urte dira Sare Translations sortu nuela, eta aurretik Sare Contents eratu dugu, itzultzeaz gain edukiak sortzeko. Bizimodu bat da ekintzaile izatea, abentura. Nik ez dut nire burua

**"Ekintzaile guztiok bezala, aurrera ateratzeko borrokan jarraituko dugu etorkizunean ere"**

ikusten zortzi orduz makina baten aurrean "jo eta su" egunez egun. Erronkak behar ditut.

#### **Nola dago ekintzailetza eskualdean? Osasuntsu dago sektorea?**

Ez da une ona, baina besteentzat lanean dihardutenentzat ere ez, ezta? Zalantzas beteta dugu etorkizuna, denok. Gure helburuetako bat ekintzaile gehiago gerturatzea da, eta horretan dihardugu.

#### **Hamar urte betetzen ditu Ekin-gunek. Nola irudikatzen duzue elkartea hemendik hamar urtera?**

Ekintzaile guztiok bezala, aurrera ateratzeko borrokan jarraituko dugu. Gu geu ekintzaileak gara eta denon onerako da eskualdearen enpresa-egoera eta, oro har, egoera ekonomikoa sendoa izatea. Beraz, beren enpresa edo proiektua martxan jarri dutenei edo jartzera doazenei eskua luzatu nahi diegu elkarrekin urrunago iristen laguntzeko.

#### **Urteurrena ospatzeko ekimen berezirik egingo duzue?**

Bai, urte berezia izango da. OnEkin sariak bereziak izango dira, bazkideentzat ere ekintza bereziren bat prestatuko dugu... Gonbidatuta zaudete.

# Emakumeak lan munduan barneratzeko

## EMEKIN EGITASMOA

2007an jarri zuten martxan Emekin programa Foru Aldundiak, Aspegi elkarteak (Emakume Profesional eta Enpresarien Gipuzkoako Elkarte) eta Laboral Kutxak, Europako Gizarte Funtsak % 50ean finantzatuta. 15 urte beteko ditu aurten programa honek. 15 urte emakumeak laneratzeko ahaleginean. Programa honen atzean hainbat aholkulari ere badaude, emakumei lan mundurako ibilbidean laguntzeko, eta horietako bat da Eibarko Somos Asesores enpresa. Bertako Jaione Moreno hasiera-hasieratik inplikatu zen Emekin programan, eta berak eman dizkigu egitasmo honi buruzko azalpenak.

Emakumeak gero eta gehiago barneratzen dira lan munduan, baina hala ere, gizonezkoen aldean asko dira oraindik etxean geratzen diren emakumeak. Kontziliazioa eta zaintza emakumeen ardurak dira gaur-gaurkoz, eta egoera hori apur bat irauli nahian dabil-tza erakundeak. 2007an, esaterako, Emekin programa jarri zuten martxan. Emekin negozio ideia bat duten emakumei zuzendutako programa da, eta, bere helburua da Gipuzkoan enplegua sortzea, emakumeek martxan jarritako enpresa proiektuak bultzatuz. Honenbestez, enpresa proiektu bat duten eta hura abiarazi nahi duten emakume zein emakume talde guztiak izan daitezke programaren onuradun. 35 urtetik gorako emakumei zer-

bitzua emateko asmoz jaio zen Emekin, eragileek ikusi zutelako garai hartan adin horretatik gorako emakume asko zeudela etxean, eta lan munduan eskulana behar zela. Behar horri erantzuteko, emakume horiek etxetik atera eta lan mundura erakarri behar zirela ikusi zuten. 2007tik 2013ra arteko egitasmoa zen hasieran, baina emaitza "onak" ikusita, egitasmoarekin jarraitzea erabaki zuten. Gaur egun martxan dago oraindik, eta gainera, emakume ekintzaile guztiak hartzen ditu orain, adina kontuan hartu gabe.

### 1.189 lanpostu berri

Jaione Moreno Somos Asesores aholkularitzako kidea da, eta sorreratik egon da Emekin egitasmoari oso lotuta. Hasierako etapa hartan hogeai aholkulari homologatu zeuden programa honi lotuta, baina gaur egun gehiago dira. Morenok hainbat prestakuntza saio egin zituen emakumei lagundu ahal izateko, eta azaldu duenez, urte hauetan emakume askori eman die zerbitzua. Enpresa "asko" jarri di-

**"Hamar urtean 849 enpresa berri jarri dituzte martxan Gipuzkoan Emekin egitasmoari esker"**

tuzte martxan Debabarrenean Emekin programari esker. Illeapaindegiak, online bidezko salmenta plataformak, tabernak, okindegi-gozotegiak, edergintza zentroak... Lehen hamarkadako (2007-2017) datuen arabera 1.591 emakume prestatu dituzte Emekin programaren barruan ekintzaitzarako trebetasunetan. 849 enpresa berri abiatu dituzte, eta guztira, 1.189 lanpostu berri sortu dira.

Hamar urte horietan sortutako enpresen artetik % 55,59 zerbitzuen sektorean ari dira, %35,55 merkataritzan, eta % 8,86 ostalaritzan. Enpresa berrien kokalekuari begiratuta, emakumezko ekintzaile gehien Donostialdean daude (% 38,08). Debabarrenean, enpresen % 4 sortu dira, Foru Aldundiak emandako datuen arabera.

Jaione Morenori egitasmo "ona" iruditzen zaio Emekin: "Emakumei ematea diru-laguntzak eta eurak izatea euren diruaren jabe oso ona da eta emakumearen ahalduntzean laguntzen du".

### 50 orduko aholkularitza

Emekinen barruan hiru ahokularitza zerbitzu eskaintzen dira: hasierako orientazioa, erabakitze laguntza eta jarraipena. Lehenengo fasean 25 orduko aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute, eta horren barruan, bidegarritasun plana egiten da. "Emakumeak ideia batekin etor-



tzen dira, baina ideia hori egingarria den edo ez aztertzea ezinbestekoa da". Bideragarritasun plana egitea ez da erraza izaten, gehienetan salmenta kopurua estimazio bat izaten delako, eta plan hori ondo egitea oso garrantzitsua da. Bideragarritasun planean kostu eta sarrerak kalkulatu behar dira: begiratu behar da inguruan dagoen kompetentzia, baita ere egunero enpresa horren pertsiana altxatzeak duen kostua... "Bideragarritasun plan on bat da enpresa berri baten oinarria".

Hasierako fase horren ondoren, eta bideragarritasun plana egin da dagoenean, beste 25 orduko aholkularitza zerbitzua eskaintzen zaio ekintzaileari, burokrasia fiskalarekin laguntzeko. "25 ordu ez da asko, baina uste baino gehiagorako ematen du". Azkenik, enpresa horiei jarraipena ere egiten zaie Emekin egitasmoaren barruan.

Ekintzailea izatea beti da "interesgarria", baina gaur egun ez da garairik "onena" horretarako ere. "Garai batean enpresa bat martxan jarri eta ia beti ondo joaten zen, baina gaur egun ez da horrela izaten". Hala ere, emakumeentzako bereziki ekintzaile izatea eta negozio propioa martxan jartzea irtenbide ona dela uste du Morenok. Ekintzaile izateak ideia bat eduki eta hori gauzatzea dakar berarekin, eta horrek baditu bere arriskuak: "Ekintzaile izateak esan nahi du ideia horrekin pentsatzen egotea etengabe, baita lan jarduna amaitu ostean ere". Zailtasun eta arrisku guztiak kon-

**35 urteko emakumeei zerbitzua emateko sortu zuten Emekin, baina orain emakume guztiak hartzen ditu**

tuan hartuta ere, ekintzaile izatea lan munduan barneratzeko aukera interesgarria da.

**Bideragarritasun plana egiteko 25 ordu eskaintzen dituzte eta beste 25, burokrasia fiskalerako**

### Kontaktua

Emakumea bazara eta Gipuzkoan zure enpresa ideia martxan jarri nahi baduzu, hona hemen Emekin egitasmoarekin harremanetan jartzeko bideak:

- [emekin@gipuzkoa.eus](mailto:emekin@gipuzkoa.eus)
- Doako telefonoa: 900 701 132



# "Ni pozik nago baina oinak lurrean izan behar dira"

**NAGORE MARTIN** LEHEN SEKTOREKO EKINTZAILEA

V. Landaola Sarien baitan, aurten, Emakumeak Landa Eremuan saria Nagore Martini eman diote. Ahuntzaina da Martin eta haien esnearekin Egotzako gazta ekoizten du, Soraluzen. Kaletik landa eremura joan den emakumezko ekintzailea da Nagore Martin.

**Pozik sariarekin?**

Bai. Oso pozik.

**Zu saridun aukeratzeko baloratu dute baserriarekin loturarik izan ez arren, kemena izan zenuela hirigunetik baserrira joan eta abeltzaintza eta gaztagintza ogibide bihurtzeko. Zure ustez kemen handia behar da?**

Bai. Gauza askorekin kezka handia nuen: jakitea ea produktua salduko duzun, zelako inbertsiotan sartuko zaren... Baina askotan, hobeto da ez pentsatzea, bestela ez duzulako aurrea egingo.

**Zelan erabaki zenuen aurrera egitea?**

Banekien hau nahi nuela, oso gustuko dut bizimodu mota hau. Bizitzako gauza guztiak moduan, argi izan behar da, baina argi baldin baduzu, pausoa eman egin behar da.

**Izan zenuen aholkularitzaren bat?**

Ez. Nik nire kabuz egin nuen dena, Onarrekin (senarra) batera.

**Eta bestelako laguntzaren bat izan zenuen?**



Nagore Martin Landaola sariarekin.

Artzain Eskolan lagundu zidaten. Umea motxilan hartu eta hara joan nintzen nire ideiarekin. Han esan zidaten oso argi nuela zer nahi nuen eta Batisekin hasi nintzen bideragarritasuna aztertzen. **Zer esango zenieke ekintzaile izatea burutik pasatu baina pausoa ematera ausartzen ez diren horiei?**

**"Negozio motaren arabera, errazagoa edo zailagoa da ekintzaile izatea; orain egoera zaila bizi dugu"**

Egia esan, orain urte batzuk esango niekeen nahi dutena egiteko eta aurrera jarraitzeko. Baina egia da bizi garen gizarte honetan zaila dagoela egoera. Beste balore mota eta eros ohitura batzuk daude. Negozio motaren arabera, errazagoa edo zailagoa izan daiteke.

**Erosoagoa da beste norbaitendako lan egitea?**

Gaur egun badirudi baietz, baina ez nik hori sinisten dudalako baietik eta jasan behar dugun burokraziak eta agintariek oso konplikatua egiten dutelako ekintzaileon jarduna. Niri berdin zait 16 ordu lan egin, txarren burokrazia kontuak daramatzat. Benetan gustuko dut egiten dudana baina penagarria da horren informazio gutxirekin kudeatzea nekazaritza mundua eta gauzak erabakitzea gurekin batzarrak egin barik.

**Hala ere, erabakia hartu zenuenetik 9 urte pasata, esango nuke ez zarela damutzen batere...**

Ez. Nire familia, seme-alabak nik haztea eta haiei erakustea eguzkiarekiko, naturarekiko, lurrarekiko eta animaliekiko maitasuna oso garrantzitsua iruditzen zait. Dena den, ni pozik nago baina oinak lurrean izan behar dira eta egoera ez da batere erraza. Ni pozik nago gauzak poliki-poliki egin ditudalako.

**Gainera, emakumea zara; horrek ekarri ditu eragozpenik?**

Ni hasi nintzenean, lehen ikasturtean dena ziren gizonak, ahuntzaingintzan. Baina nire kasuan ez naiz gutxiago sentitu eta ez naute okerrago tratatu. Gainera, gaur egun ni naiz elkarteko presidente. Ahuntzai du izena elkar-teak.

**Besterik gaineratu nahi baduzu...**

Nahiko nuke jendea kontzientziaztea lehen sektorearekin. Oso garrantzitsua da zer jaten dugun, jaten duguna gara.

## Erdi-Mailako Heziketa zikloak

Mekanizazioa

Administrarritza Kudeaketa

Instalazio Elektriko eta Automatikoak

## Goi-Mailako Heziketa zikloak

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Zuzendaritzari laguntzea

Administrazioa eta Finantzak

Mekatronika Industrialia

Automatizazioa eta Robotika Industrialia

Fabrikazio Mekanikoko Produktioaren Programazioa

(Bi Ziklo hauek Eskaintza Partzialean egiteko aukera: Zure kualifikazio maila hobetu nahi baduzu eta ohiko ordutegia bete ezin baduzu, heziketa ziklo hauek moduluka egiteko aukera duzu).

## Espezializazioak

Forjaketa Prozesuen Diseinua eta Ekoizpena  
lanbide-espezializazio programa

Fabrikazio adimenduna espezializazio  
kurtsoa

## Aukera bat baino gehiago!

- Lanbide Heziketa **DUALa**.
- ETHAZI** Metodologia.
- Arratsaldez Ingeleseko errefortzu klaseak doan.
- Langile eta langabetuentzat ikastaroak.

- Eskaren araberako formazioa neurria.
- Erasmus+**.
- Ikasle eta ikasle-ohientzat **lan-poltsa** zerbitzua.
- Orientazio zerbitzua.

# Ateak zabalik jardunaldiak

Apirilak 5 eta 28

**Bisita orduak:**

10:30etan eta 12:30etan

16:00etan eta 18:00etan

**Izena eman:**

**[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)**



**Eta Aurrematrikulak  
Maiatzean!**



**[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)**

**Miguel Altuna Lanbide Heziketa**

Agirrebidea 2, 20570 Bergara.

TEL.: 943 89 92 70 | 943 89 92 71 | [info@maltuna.eus](mailto:info@maltuna.eus)

# PUBLIZITATEA



**IZKUGUIRRE**  
Igalberritza

Erakin berriak • Kalitateko emaitza  
Erreforma • Era guztietako Igalberritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289



**FOGASLER**  
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) • 943 71 82 49 (Oñati)  
fogasleriturgintza@gmail.com



**KLB6**

Kalabarren 6  
943 67 75 26  
Mutilo eta nesken  
moda guztia

BSB *Biga Jarna* **ISOLID**  
VERO MODA **BONICH** **new balance**



*Jatearen plazarran, bertatik bertara*

**Batzoki**

eguneko menua  
sacharoz gabea  
kama eta arrozak

eguztekoak eta  
hamburgeriak  
enikango bezeroak

basilla eta  
lagun arriko  
hotzakak

Erretzelak 943 75 20 35

**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

Zuri-gentako hortz klinika,  
puntu puntako teknologekin lan  
egiten dugu. Cefi-Cam sistema  
bertakia erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORALLUZE  
Tel: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe.l@gmail.com

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



**Etxabe**  
Harategia

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Soraluzeko baserrietako  
produktuak
- Etxeko irupaki eta txistorrak

Etxaburuta 5  
Telefonoa: 943 75 22 75

**Hortz klinika**

Erabil 1  
Tel.: 943 75 95 13

Javier Alonso  
Mediku Estomatologoa  
K.Z. 48.000.501

**27 urteko esperientzia**  
odontologia, ortodontia,  
odontopediatria, ortodontia,  
ingiriak, estetika...  
Zerbitzu radiologiko propioa (3D)  
ekianera, orto eta tele.

Katia Gustineta  
Odontologoa  
K.Z. 48.001.541




**Txoko**

Eguneko menua,  
plafar konbinatuak,  
hamburgerak,  
ogitariekak,  
ogitariekak,  
napiak,  
pizirik,  
gosiak...

Enkarguak egiten dira  
Tel. 943 75 17 03

**Kontulan**

aholkularitza  
ABOKATUAK

Errenta aitaperak • Administrazio tasak  
Traffiko burokratza • Lan-erlako aholkularitza  
Epresen kontuztuta/ideotuztuta • Kontabilitates

Santa Ana 13 • 1. esk. 20590 Sorluze  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

**JUAN MARI**  
ARRAINDEGIA

ARRAUNDEGIA PLAZA • 943 75 24 40

Arria txokoa  
Etxera eramateko zerbitzua  
Enkarguak hartzen ditugu



**MENDIZABAL**  
okindegia

Ogla - Prentza - Gosariak

Astelehenetik  
ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbetak eta  
igandekak  
08:30 - 13:15

Kalabarren 10  
Tel.: 943 75 13 99



**BOLIA**

TABERNA

Piribok, ardoak,  
konbinatuak  
Gazte-giroko festa



**Altamar**

Itzapaindegia  
Estetika  
Solariuma

Galdak 4, beheko  
Tel.: 943 75 13 11 - 642 51 34 94



**Griado**  
Fruitategia Urdaitegia

Enkarguak Whatsapppe  
Etxerako zerbitzua  
Berriak & delicatessen

Astelehenetik ostiralera:  
09:00-13:00 eta 17:00-20:00  
Larunbetak: 09:00-13:00

429 918 536



**Belarrak**

lana eta  
belarrenda

Elikagai  
ekologikoak  
Etxerako zerbitzua

Santa Ana 22  
943 75 30 11



Bidelagun euskaltzaletasunean








# Turismorako zein enpresen beharretara egokitutako hotel estrategikoa

Urteetan Azitain gainean ikusi izan dugun etxeak hartu du bizia: Hiru izarreko Arriarte hotela zabaldu dute bertan, eta berehala zabalduko duten erretegia ere izango du. Punta puntako azpiegiturak dauzka bezeroei eskaintzeko, eta turismorako zein enpresen beharretarako prestatuta dago. Iker Salgadok kudeatuko du hotela, eta Salua Srassi da proiektu berri eta berritzaile honen ardura hartuko duena. Hotela zabalik dago, eta jatetxerako erreserbak egiteko aukera ere zabalik dago.

## Ireki berri duzue Arriarte hotela. Zein ezaugarri ditu?

3 izarreko hotela da. Eibarren dago kokatuta, Azitainen, autopista sarreratik bertan. Kokaleku estrategikoa dago, izan ere Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen erdian kokatuta dago, eta hirurak distantzia berera daude, gutxi gorabehera.

## Zein zerbitzu eskaintzen dituzue Arriarte hotelean?

Turismorako hotela izan daiteke, batetik. Bere kokalekuagatik oso egokia izan daiteke Euskal Herria ezagutu nahi dutenentzat. Autopistaren sarrera bertan dago, eta hortik edonora joateko aukera dago, turismoa egitera. Era berean, garraio publikoa erabiltzeko aukera badago Eibarren, tren edo autobusa, esaterako. Baina turismoaz gain, Azitain industrigunea oso gertu daukagu, eta gune horretan enpresa asko daude. Inguruko herrietan ere industria asko dago, eta langile asko etortzen da kanpotik. Jende horri ostatu emateko ere prestatuta dago gure hotela. Lanera datozenentzako batzar gela bat ere badu hotelak. Argi naturala dauka gela horrek, eta teknologikoki ondo hornituta dago, langileen beharrak asetzeko. Enpresen edozein ekitaldi ospatu daiteke gela horretan, aurrez erreserba eginda. Gainera, to-paketa horietarako catering zerbitzua ere eskaintzen dugu.

## Zein azpiegitura ditu hotelak?

15 logela ditugu, espazio zabalekoak. Logela bakoitzak 14-21 metro koadro ditu, eta bezeroaren behar guztiak asetzeko hornituta daude: Wi-Fi konexioa dute gela guztiek, dutxa, ile lehorgailua, aire egokitua, telebista... Gure helburua bezeroa eroso sentitzea da. Nabarmendu

nahiko nuke gela guztiak intsonorizata daudela, bezeroek inolako zaratarik gabe atsedean har dezaten. Horrez gain, gosaria, hamaiketako, bazkaria eta afora ere eskaintzen ditugu. 24 orduko harrera zerbitzua daukagu hotelean, bezeroak lasai eta presarik gabe etorri ahal izateko. Badakigu gaur egun jende askok bakarrik bidaiatzen duela, eta horietako askok maskotak dituztela; beraz, animaliak ere onartzen ditugu hotelean. Hotelaren ingurunean animaliekin gozatzeko aukera handia eskaintzen du gainera; beraz, hemen gustura egongo dira animaliak eta jabeak.

## Ostatu hartzen ez duena joan daiteke jatetxera?

Bai, jakina. Hotelaz gain, erretegia ere zabalduko dugu, eta ibilbide profesional handia daukan sukaldaria izango da arduraduna. Kalitatezko osagaiekin, kalitatezko otorduak eskainiko ditugu. Kalitatezko lehengaiak eta parrilla izango dira gure ezaugarri nagusiak. Erretegi menua eskainiko dugu, baina, horrez gain, eguneroko menuak eta menu bereziak ere prestatuko ditugu, eta karta ere izango dute bezeroek aukeran.

## Ospakizun handietarako prestatutako jatetxea izango da?

Bai, ezkontzak eta bestelako ekitaldiak ospatzeko prestatutako jangela daukagu. Bi terraza handi ditugu bezeroen eskura: lehenengo inaugurazio egunean bertan erabiltzeko moduan izango dugu, baina bigarrena oraindik prestatzen ari gara. *Chill out* estiloko terraza prestatu nahi dugu, bezeroei gune bereziagoa eskaintzeko.

# Igartua, lehorreko ontzigilea

25 URTEZ ITSASONTZI HISTORIKOEN ERREPLIKAK MUNTATU DITU, ZALETASUNEZ

---

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: JOSE MARI IGARTUA

---

Ingurumari honetan, gutxi dira Jose Mari Igartua (Soraluze, 1930) moduko pertsonak. 1994ko martxoaren 16an, 64 urterekin erretiroa hartu eta orain dela bi urtera arte, gutxienez, 50 itsasontziren erreplikak egin ditu, bakarrik itsaso-museoetan ikusten diren horietakoak. "27 barku handi, txiki batzuk eta beste 15 kila erdiko barkuak", dio berak.

Santa Anako etxean kontatu ditu bere zaletasunaren gaineko xehetasunak, Lore Juaristi emazte eta bidelaguna ondoan duela.

Soraluzeko ferreteruak esplikatzen duenez, berak egindako itsasontziak barku historikoen erreplikak dira, 60-80 zentimetro ingurukoak. "San Juan de Nepomuceno. Nelson almirantearen Victory. Bounty (pelikula ere badago horrena). Wasa, Stockholmeko portutik irten berritan hondoratu zena; 400 urte geroago atera egin dute eta orain museo batean dago. Etzoziko Ama fragata berritu nuen. El Montañes egin nuen... Hori, adibidez, gaitza da, 1.500 ordu inguru egin nituen harekin".

## Lehena, suhiarena

Igartua kasualitatez hasi zen *hobby* hori lantzen.

"Ferreterian beti nintzen gauzak konpon-zale: plantxak,

garbigailua... Bezeroek niri ematen zidaten lehen abisua eta ezin banuen, gero teknikariari. Beti izan naiz trebea eskuekin. Erretiratu nintzen egunean, Arrasatera joan nintzen alabarengana. Harekin eta umeekin paseatzen gindoazela, jostailu-denda bateko erakusleihoan etxeak-eta zeuden, muntatzeko horietakoak. Alabari esan nion: *Nik muntatu behar ditut ba halakoxe gauzak!* Eta alabak esan zidan: *Nik badaukat garajea barku bat Iñakik (senarrak) hasitakoa baina amaitzeke.* Hantxe zeukan baztertuta eta orduantxe hasi nintzen barkuak egiten".

## Pazientzia eta jakintza

Harrezkero, 25 urtean, batez-beste, egunean laupabost ordu barkuak egiten eman ditu Jose Mari Igartuak. Barkuaren ezaugarrien arabera, batzuekin urtebetez edo urte eta erdiz jardun da, pieza txikiak bata bestearekin ondo josteko ahaleginean, dena eskuz, Igartuak dioen moduan, Job Santuaren pazientziarekin. "Txarrena da barkuaren kostillajea ondo egitea. Pieza denak igual samarrak dira, ezereza da euren arteko aldea eta bat gaizki ipiniz gero, barkua apurtu egin behar duzu. Badaude muntai batzuk... den-dena da tamaina txikikoa, modelo askotan, killa egiteko iltzea sartu eta gero sikatzen

denean, iltzeak atera egin behar ditut!"

Eta ez hori bakarrik. Halakoak egiteko gutxienez jakintza behar dela ere onartu du Igartuak: "Delineatzaile-edo izan behar zara. Planoak ekartzen dituzte eta haiek irakurtzen jakin egin behar da, bestela ezin da barkurik egin".

## Denak sakabanatuta

Elkarrizketa egitean, baina, ezin izan dugu Igartuaren barkurik zuzenean ikusi. Non dituen galdetzean... "Non? Eneeeeeee. Denak sakabanatuta. Denak erregalatuta. Gureak ditugu Deban hiruzpalau, tailerlean bat edo bat, Ondarroan bat, Donostian beste bat dauka Alzua medikuak, Lucio Oruesagastik bost ditu... Barkuak egin ditut baina enkarguak zirenean, materiala-eta eurek ekartzen zuten eta nik muntatu. Denborapasa, kobratu barik, bestela dirutza pagatu beharko lukete".

Kontuak ateraz gero, 1.500 ordu barku bat egiten (25 euro orduko), gehi materialak balio duena (600-900 euro, gutxienez), 38.000 euro inguru kostako litzateke Igartuak egindako barku handietako batek. Akaso gehiago, jakinda ya barku-egileak laga egin behar izan diola muntatze-lanei, halabeharrez. Etxepean dauka tailerra eta 84 eskailera hara igotzeko, "eta, ezin hara igo, ezin naiz mugitu-eta".



Jose Mari Igartua Wasa itsasontziaren maketarekin.



Jose Mari Igartua eta Lore Juaristi.



El Montañes.



Etzoziko Ama.



# Bertako edari begetala

ABAL KANPAINA 'GARAU' KOOPERATIBA MARTXAN JARTZEKO

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO **ARGAZKIAK:** GARAU KOOP.

Landare-edari begetala, "bertakoa eta ekologikoa", horixe da Axlor Elortzak eta Unai Larreategik eratu duten Garau kooperatibak ekoitziko duena. Merkatu azterketa burututa eta erakundeen babesla lortuta, finantzaketa da ekoizten hasteko lotu beharreko azken katebegia. Finantzaketaren zati bat partaidetza sozialaren bidez lortu nahi dute eta helburu horrekintxe abiatuko dute *Garau bat, bertakoa garatzeko* kanpaina (garaua = alea), kooperatibak martxan jartzeko behar dituen abalak lortu asmoz.

## Bertakoa eta ekologikoa

Duela bi urte sortu zen proiektua garatzeko ideia: "Ikusi genuen sektore honetan badagoela behar bat bertan ekoizteko, edari mota hauek kanpotik datozelako, Italiatik ez bada, Alemaniatik... Hala, erabaki genuen aztertzea ea bideragarria den produktu horiek hemen ekoiztea". Lehenik Debegesara jo zuten eta ondoren, Leartiker ikerketa zentroarekin batera aztertu dute produktua bideragarria den: "Probak egin ditugu hemengo zerealekin eta ikusi dugu baietz, gai garela produktu on bat garatzeko merkatuko prezioetan".

Proiektuaren lehen fasean, aurreikusitako dute bi edari ekoiztea, bata arrozarekin egindakoa eta



Garau edariak; arrozarena eta oloarena. GARAU KOOP.

bestea oloarekin egindakoa, "horiek direlako gehien kontsumitzen direnak". Biak ala biak, arroza zein oloa, ekologikoak izango dira; Alcaravanetik (Nafarroa) ekarriko dituzte. Horrekin batera, Garauren edariak pasteurizazio arinagoa izango dute ultrapozesatuak diren produktu konbentzionalen aldean, modu horretan "propietateak hobeto mantentzen dituelako". Izan ere, Elortzak eta Larreategik oso garbi dute "kalitatezko produktua" ekoizti nahi dutela, "bertakoa eta ekologikoa", ekoizpen eta

**"PROBAK EGIN DITUGU HEMENGO ZEREALEKIN ETA IKUSI DUGU BAIETZ, GAI GARELA EDARI ONA EGITEKO"**

merkatu eredu "sozialagoa" bultzatzeko.

Kooperatibaren ekoizpen gunea berriz, Bergaran kokatuko da, 400 m<sup>2</sup>ko pabiloian, Larramendi industrialdean. "Ahalegindu gara Sorluzen baldintza egokiak dituen lokala bilatzen baina ez dugu topatu. Bergarakoa izan da gertuen topatu duguna Spriluren bitartez".

## Partaidetza soziala

Finantzazioari dagokionez, euren poltsikotik ipini beharreko diruarekin batera, dagoeneko ziurtatua dute Eusko Jaurlaritzaren babesla, Lehiatu Berria programak diru-laguntza esleitu baitie (inbertsioaren %25a). Gainerakoa, mailegu bidez lortuko dute hainbat erakunderen bitartez; tartean, KOOP57 erakundearen bitartez 100.000 euroko mailegua





Axlor Elorza eta Unai Larreategi Bergarako Larramendi industrialdean, kooperatiba ezarriko den pabiloiaren parean. GARAU

lortzeko bidea jorratu nahi dute, kopuru hori partaidetza sozialeko abalen bitartez ziurtatzea da mailegua lortzeko lehen pausoa. Hain zuzen, abal horiek lortzeko helburuz eta sektoreko eragileen zein kooperatiba edo kontsumo-taldeen bazkidetza lortu asmoz abiatuko dute kanpaina, lagundu nahi duten herritarrei aukera emanez proiektura batzeko 500, 1.000 edo 2.000 euroko abalak sinatuta.

"KOOP57k ekonomia sozial eraldatzailearen eredia lantzen duten beste hainbat proiektu finantzatu ditu, esaterako, une honetan Goiener energia kooperatibaren azken finantzaketa kanpainarekin dihardute. Garauk baliatuko duen abal sozialen sistema crowdfunding-aren antzekoa da baina zuzenean dirua ipini orde, abalak sinatuz

bideratuko da. Horrela, abala sinatzen duenak ziurtatzen du noizbait kooperatibak porrot egingo balu, balizko zorra ordaintzen lagunduko dukeela berak aukeratu duen zenbateko horrekin. Dena den, ondo bidean, abala automatikoki

**"EDARI MOTA HAUEK  
KANPOTIK DATOZ,  
ITALIATIK EZ BADA,  
BELGIKATIK EDO  
ALEMANIATIK"**

**HERRITARREK AUKERA  
DUTE PROIEKTURA  
BATZECO 500, 1.000  
EDO 2.000 EUROKO  
ABALAK SINATUZ**

baliogabetuko da enpresak mailegua ordaindu ahala".


### Izen-ematea

Proiektuari lagundu nahi dioten herritarrek ondorengo loturan eman dezakete izena eta ondoren zuzenean jarriko dira harremanetan eurekin abala sinatu ahal izateko:



## ZERBITZUAK


### ZORION AGURRAK



**Iritz Aizpitarte**  
Apirilaren 2an, 39 urte. Zorionak amatxo!!! Maren eta Aitorren partez!



**Unai Calles Agirre**  
Otsailaren 7an, 13 urte. Zorionak Unai!!!



**Oihan Larrañaga Agirre**  
Martxoaren 4an, 16 urte. Zorionak Oihan!!! Familia eta jarraitzaileen partez!



**Aitor Agirre**  
Apirilaren 27an, 9 urte. Zorionak Aitor!!!



**Ekain Larrañaga**  
Apirilaren 21ean, 18 urte. Zorionak Ekain!!!



**Maria Jesus Arrizabalaga**  
Apirilaren 17an, 77 urte. Zorionak Amama!!! Familia guztian partez!!!



**Jose Mari Igartua eta Lore Juaristi**  
Martxoaren 16an, 92 urte eta otsailaren 1ean, 91 urte. Zorionak, txapeldunak! Etxekoen eta lagunen partetik.



**Amets Uzin Zubizarreta**  
Apirilaren 3an, 9 urte. Zorionak Amets, jarraitu halako jatorra izaten! Plaentxiako eta Eibarko familiaren partez. Muxu pilo piloa.



**Eneko Zubiaurre Mendizabal**  
Martxoaren 27an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako gure eskalatazaila finari, etxeko guztien partez!



**Izer eta Itxaso**  
Martxoaren 3an eta 8an, 8 eta 40 urte. Asko maitxe zaituztegu, segi beti bezain alai!! Etxeko guztien partez.



**Oier eta Unax Fulgencio Ucin**  
Otsailaren 21ean 12 urte eta martxoaren 1ean 9 urte. Zorionak bikote! Patxo haundi bat danon partez!



**Ainara González Armengol**  
Otsailaren 27an, 7 urte bete zenituen. Zorionak! Segi orain arte moduan sorgintxo. Etxekoen partez.



**Ainhoa Gallastegi**  
Martxoaren 15ean. Zorionak, printzesa! Etxekoen partetik.



**Aratz eta Aitzol Placencia**  
Otsailaren 5ean bi urte eta martxoaren 20an 32 urte. Zorionak! Muxu bat etxekoen partetik.



**Iraulza Diez Rascon**  
Martxoaren 25ean, 15 urte. Zorionak bihotza, etxeko guztien partez.



**Oier Cid Benayas**  
Martxoaren 23an, 12 urte. Zorionak nire txapelduna! Aititan partez.



**Irati Oregi**  
Apirilaren 10ean, 10 urte. Zorionak eta jarraitxu holako neska ederra izaten. Familia osoaren partez.



**Aitxitxa Karlos, Irati eta Iosune**  
Apirilaren 1, 7 eta 18xan, 66, 7 eta 40 urte. Muxu handi bat etxeko guztien partez!!

### OHARRAK

#### 1982. urtean jaiotako bazkaria

Ekainak 4 ,Txurruka jatetxean. Izena emateko idatzi helbide honetara: Kinta1982soraluze@gmail.com. Izena emateko azken eguna apirilak 30 izango da.

#### 1971n jaiotako bazkaria

Maiatzaren 14an egingo da. Izen-ematerako deitu edo idatzi 667833127 mugikorrera.

### HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

#### Hildakoak

Prilidiano Alvarez Alvarez  
Mohammed Sharif Ahmed  
Maria Luisa Rodriguez Gonzalez  
Juan Maria Altuna Egia  
Miguel Sarmentero Vallecillo  
Andrea del Carmen Solorzano Gonzalez  
Nieves Zazo Martin

#### Jaiotakoak

Solaiman Ouchen

ESKELAK


ESKELA

## Juan Mari Altuna

2022ko martxoaren 7an hil zen, 89 urte zituela.

Nahiz eta gure ondoan ez egon, beti egongo zara gure bihotzean

Senideak.




ESKELA

## Mohammed Sharif Ahmed

2022ko martxoaren 20an hiz zen, 37 urte zituela.

Bat egiten dugu zure saminarekin. Jaso ezazue gure doluminik sentikorrena.

Plaentxi HLHko ikasle, irakasle eta gurasoak.



22.korrika

# HITZKERIN

# bertako

igogailuak | ascensores

## GIPUZKOA

# 943 903 450

**EUSKARA, GURE HELBURU KOMUNA** [www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)





# OGASUNAREKIN EUSKARAZ EGIN DEZAKEZU



ITORKUZUNA  
OGASUN  
Euskaraz

NOLA AUKERATU  
HIZKUNTZA?

1. ERRENTA KAMPAINAN  
2. 030 EREDUA (BULEGOAK)  
3. GIPUZKOATARIAN

2023an 100.000 herritar  
Ogasunarekin euskaraz



## Martxoak 26, zapatua

### Mendi irteera Urkoko kobara

09:30 Unzaga plazatik

Eibarko klub deportiboko espeleologia taldekoek gidatuta dute eta Eibarko Baso Biziak taldearen azalpenekin. Izena-ematea: Eibarko AEKn 943 20 13 79 eibar@aek.eus.

Antolatzailea: Eibarraldeko AEK

## Apirilak 1, barikua

### Korrika

11:00 Maltzagatik herrira



### Ekitaldia eta kantu jira

Plazentzia kantuan taldearekin eta Musika Eskolako ikasleekin

12:30 Plaza Berrian

### Korrika Txikia

17.00 Ludoteka-Gazteleekutik abiatuta  
 Kukumixo

### Piratak

Hankaluzeen kalejira

18:00 Kalean zehar

Goloka konpainia

Antolatzailea: Hizkuntza Politikaren Batzordea



### Buruhaundiak

19:00 Kontzejupetik

### Tripa-festa Agin Laburu eta Eli Pagola bertsolariekin

21:00 Gaztetxean

Sarrerak iratxon, martxoaren 25etik aurrera



## Apirilak 8, barikua

### Dupla

Kontzertua

19:00 Plaza Zaharreko karpa

Antolatzaileak: Udal-gazteleku eta Kultura Batzordea

